

OINARRIZKO ERRENTAREN PROPOSAMENA ETA KRISI GARAIAN EZARTZEKO ARRAZOIAK

GRADU AMAIERAKO LANA

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (DONOSTIAKO ATALA)

Egilea: Nagore Artola Leunda

Zuzendaria: Maite Ansa Eceiza

2016-2017 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. OINARRIZKO ERRENTA.....	6
2.1. Definizioa eta ezaugarri nagusiak.....	6
2.2. Kontzeptuaren sorrera eta azken urteetako bilakaera.....	7
2.2.1. Mundu maila.....	7
2.2.2. Basic Income Earth Network.....	10
2.2.3. Europar Batasuneko ekimena.....	10
2.2.4. Espainia.....	11
2.3. Oinarrizko errentaren eta gainerako diru-laguntzen arteko desberdintasunak.....	12
2.4. Oinarrizko errentaren aldeko argudioak.....	14
2.4.1. Aldeko argudioak.....	14
2.4.1.1. Askatasuna.....	15
2.4.1.2. Lan munduko aldaketak.....	15
2.4.1.3. Emakumeen egoeraren hobekuntza.....	17
2.4.2. Hiru alternatibarekiko dituen abantailak.....	18
2.5. Oinarrizko errentaren aurkako argudioak.....	19
2.5.1. Aurkako argudioak.....	19
2.5.2. Desoreka ekonomikoak.....	20
2.5.3. Alternatibak.....	21
2.6. Finantzaketa proposamenak.....	22
2.6.1. Espainiako proposamena.....	22
2.6.2. Gipuzkoako proposamena.....	24
2.6.3. Irlandako proposamena.....	25
2.7. Kasu errealak.....	26
2.7.1. Alaska.....	26
2.7.2. Finlandia.....	28
2.8. Oinarrizko errentari buruzko inkestak.....	28
3. OINARRIZKO ERRENTA KRISI GARAIAN.....	30
3.1. Azken urteetako finantza krisia.....	30
3.1.1. Sorrera, kausak eta lehen ondorioak.....	30
3.1.2. Krisiaren ondorioak Europar Batasunean.....	31
3.1.3. Krisiaren ondorioak Espainian.....	33
3.1.4. Krisiaren ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	35
3.2. Krisi garaian oinarrizko errenta ezartzeko arrazoiak.....	36
3.2.1. Oinarrizko errentaren abantailak.....	36

3.2.2. Gaur egungo diru-laguntzen arazoak.....	38
3.2.2.1. Espainiako RMI laguntzen arazoak.....	39
3.2.3. Oinarrizko errenta soluziorik egokiena.....	41
4. ONDORIOAK.....	42
5. BIBLIOGRAFIA.....	45
6. ERANSKINAK.....	50
6.1. Europar Batasuneko ekimenaren emaitzak.....	50
6.2. Oinarrizko errentak ekarriko lituzkeen desoreka ekonomikoak azaltzeko adibidea.....	51
6.3. Espainiako finantzaketa proposamena.....	52
6.4. Gipuzkoako finantzaketa proposamena.....	53
6.5. Irlandako finantzaketa proposamena.....	54
6.6. Europar Batasuneko langabezia-tasaren bilakaera.....	55

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: Zerga-tasaren alderaketa oinarrizko errentarekin eta oinarrizko errenta gabe.....	24
2. GRAFIKOA: Dibidenduaren zenbatekoaren bilakaera, 1982-2015.....	27
3. GRAFIKOA: Autonomia Erkidego bakoitzeko zenbatekoa, 2015.....	40

1. SARRERA

Lan honen helburua oinarrizko errentaren proposamena aurkeztea da, bere ezaugarri nagusiak, autore ezberdinek gai honen inguruan duten iritzia eta zenbait ekimen eta proposamen aipatuz. Horrez gain, krisi garaian oinarrizko errenta ezartzeko dauden arrazoiak azaldu eta diru-sarrera hau soluzio egokia izango litzatekeela diotenen iritzia ere bilduko dira.

Gaiaren gaur egungo egoerari dagokionez, oinarrizko errentaren gaia pil-pilean dagoela esan behar da. Azken aldian, ekimen eta proposamen asko egin dira eta gai honen aldeko eta aurkako iritzi asko argitaratzen dira. Gainera, azken urteetako krisia oso larria izan dela kontuan hartuta, asko izan dira oinarrizko errentaren ideia defendatu dutenak ere. Hiritarrei dagokionez, gai honen inguruko ezagutza nahiko handia dutela esan behar da.

Gai hau aukeratzeko arrazoen kasuan, Gradu Amaierako Lana egiteko zeuden gaien zerrendatik interesgarriena iruditu zitzaidalako aukeratu nuen. Lan hau egiten hasi aurretik oso txikia zen gai honen inguruan nuen ezagutza. Oinarrizko errentaren inguruko jakin-mina piztu zitzaidan eta lan hau aukera polita iruditu zitzaidan gaiaren ezagutza handitu eta autore ezberdinek duten iritzia ezagutzeko.

Lan hau egiteko erabilitako metodologiari dagokionez, bilaketa bibliografikoa egin dut ahalik eta autore gehienen iritzia bilatzeko. Informazio gehiena artikuluen bidez lortu badut ere, oinarrizko errentaren erakundeen web guneak eta egindako ekimenak jasotzen dituzten web guneak ere bisitatu ditut informazio gehiago lortzeko helburuarekin. Gainera, egunkari batzuetako albisteak ere gehitu ditut. Azken urteetako krisiaren ondorioak aipatzeko, bilaketa bibliografikoz gain, estatistika erakundeetako datuak kontsultatu ditut, zehazki Eurostat, INE eta Eustat erakundeetakoak.

Lan hau egiteko topatu dudan informazio gehiena gazteleraz dago, baina ingeleseko testuak ere topatu ditut eta euskal erakundeetan egindako kontsultak euskaraz egin ditut. Esan beharra dago oinarrizko errentaren inguruko informazio asko dagoela eta horrek erraztu egin duela lana aurrera eramatea, baina kasu batzuetan zaila izaten da hainbeste informaziotik lanerako egokiena den zatiak aukeratzea.

Lan honen egiturari dagokionez, sei zatitan banatzen da: sarrera, oinarrizko errenta, oinarrizko errenta krisi garaian, ondorioak, bibliografia eta eranskinak. Sarreraren ondoren, lana garatuko da eta bi zatitan banatzea erabaki dut: oinarrizko errenta eta oinarrizko errenta krisi garaian. Banaketa honen arrazoa da lehenik garrantzitsua iruditzen zaidala oinarrizko errentaren kontzeptua behar bezala aztertzea, gero krisi garaian ezartzeko dauden arrazoiak zein diren aipatu ahal izateko.

Oinarrizko errentaren zatian, lehenik definizioa eta bere ezaugarri nagusienak aipatuko dira. Ondoren, kontzeptu honek historian zehar izan duen bilakaera aztertuko da. Lehenik, mundu mailako laburpen bat ageri da, eta ondoren, garrantzitsua iruditu zait oinarrizko errentaren mundu mailako erakundea eta Europar Batasunean egin zen ekimena aipatzea. Gero, ideia honek Espainian izan duen garapena aipatzen da.

Ondoren, oinarrizko errentaren eta gaur egungo diru-laguntzen arteko desberdintasunak zehazten dira. Bi kontzeptuen arteko alderaketa egin aurretik, gaur egungo diru-laguntzak aipatzean zein laguntzari buruz ari naizen zehazten dut.

Hurrena, oinarrizko errentaren aldeko eta kontrako argudioak datoz. Aldekoei dagokionez, argudiorik garrantzitsuenak aipatu eta gainerakoak hiru taldetan banatu ditut, eta ondoren, hiru alternatibareriko dituzten abantailak aurkezten dira. Kontrako argudioei dagokionez, berriz, argudio nagusienak, oinarrizko errentak ekarriko dituen desoreka ekonomikoak eta proposatutako alternatibak zehazten dira.

Aldeko eta kontrako argudioak aipatu ondoren, hiru finantzaketa proposamen aurkezten dira: Espainiakoa, Gipuzkoakoa eta Irlandakoa. Ondoren, oinarrizko errentaren bi kasu erreal aipatzen dira: Alaska eta Finlandia. Hurrena, oinarrizko errentari buruzko hiru inkestetan lortutako emaitzak aipatzen dira.

Oinarrizko errenta krisi garaian zatian, berriz, lehenik azken urteetako finantza krisiaren ondorioak zehazten dira. Lehenik, krisiaren sorrera, kausak eta lehen ondorioak zein izan ziren azaltzen da, eta ondoren, Europar Batasunean, Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein ondorio izan diren.

Hurrena, krisi garaian oinarrizko errenta ezartzeko arrazoiak aipatuko dira. Lehenik, oinarrizko errentak krisi garaian ekartzen dituen abantailak azalduko dira, eta gero, gaur egungo diru-laguntzek dituzten arazorik nagusienak aipatuko dira, Espainiako RMI laguntzen arazoekin amaituz. Azkenik, oinarrizko errenta soluzio egokia izango litzatekeela dioten autoreen iritzia jasotzen da.

Lanarekin amaitzeko, hurrengo puntuan lortutako ondorioak azalduko dira, eta ondoren, erabilitako bibliografia zein izan den adieraziko da. Azkenik, lanean zehar aipatutako Europar Batasuneko ekimen, oinarrizko errentak ekarriko dituen desoreka ekonomiko, hiru finantzaketa proposamen eta Europar Batasuneko langabezia-tasaren bilakaerarekin erlazionatutako taulak ezarri dira eranskinean.

2. OINARRIZKO ERRENTA

2.1. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Oinarrizko errenta zer den azaltzeko definizio asko daude eta horien artean hiru hauek aukeratu dira:

“Oinarrizko errenta komunitate politiko batek bere kide guztiei oinarri indibidual baten gain ordaintzen dien sarrera bat da, baliabideen edo lan betekizunen frogarik gabe” (Van Parijs, 2004: 8)

“Oinarrizko errenta Estatuak ordaintzen duen diru-sarrera bat da, hiritarren eskubide gisa, eskubidea duen hiritar bakoitzari edo sozietateko egoiliarrari lan ordaindua egin nahi ez badu ere, aberatsa edo pobrea den kontuan hartu gabe edo, beste modu batera esanda, bere errentaren gainerako iturri posibleak zein diren kontuan hartu gabe, eta noekin bizi den axola gabe. Hitz gutxitan: oinarrizko errenta hiritar guztientzako baldintzarik gabeko diru esleipen publikoa da” (Red Renta Básica, d. e.).

“Baldintzarik gabeko oinarrizko errenta diru kantitate bat da, modu erregularrean hiritar guztiei baldintzarik gabe eta unibertsalki ordaindua, existentzia materiala eta sozietateko partaidetza ziurtatzeko bezain altua” (Unconditional Basic Income Europe [UBIE], d. e.).

Definizioen ondoren, oinarrizko errentak dituen ezaugarri nagusienak aipatu behar dira:

- ❖ Eskudirutan ordainduko da, horrela pertsona bakoitzak erabakiko duelako dirua noiz eta zertan kontsumitu edo erabili nahi duen. Dirua erregularitasunez jasoko da (adibidez, hilero), dena aldi bakar batean jaso beharrean (Van Parijs, 2004).
- ❖ Ezaugarri garrantzitsuenetako bat unibertsaltasuna da. Diru-sarrera hau jasotzerakoan, ez dira kontuan hartuko pertsona bakoitzaren ezaugarriak. Beraz, hiritar guztiek jasoko dute inolako bereizketarik gabe (UBIE, d. e.). Hala ere, haurrek eta pentsiodunek oinarrizko errenta jaso behar duten zehazterakoan iritzi ezberdinak daude. Haurren kasuan, batzuk diote jaiotzen diren momentutik jaso beharko luketela, beste batzuk diote adin nagusikoek bakarrik jaso beharko luketela eta gehiengoak dio adin nagusikoak izan arte errentaren zati bat bakarrik jasoko luketela. Pentsiodunen kasuan, badira oinarrizko errenta jaso behar ez dutela diotenak, baina gehienak bat batzoz erretiratu ondoren oinarrizko errenta jaso beharko luketela esaterakoan (Van Parijs, 2004).
- ❖ Beste ezaugarrietako bat indibiduala izatea da. Ez da familia unitate bakoitzak jasoko duen diru-sarrera bat, baizik eta familiako kide bakoitzak kobratuko du, kontuan hartu gabe zenbat pertsonak osatzen duten familia unitate bakoitza (Van Parijs, 2004).
- ❖ Oinarrizko errenta baldintzarik gabeko diru-sarrera bat da. Berdin du aberats edo pobre izan, hiritar guztiek jasoko dute, ez baita kontuan hartzen zein den pertsona batek duen errenta maila. Horrez gain, ez da kontuan hartzen pertsona batek ordura arte izan duen lan errendimendua eta ez da eskatzen momentu horretan lanean aritzea edo lan egin nahi izatea (Van Parijs, 2004).

- ❖ Oinarrizko errentarekin hiritarrek bizitza duina izatea eta pobreziatik ateratzea lortu nahi bada, jasotzen duten kopuruak horretarako egokia eta nahikoa izan behar du (UBIE, d. e.).

Oinarrizko errentaren eredu ezberdinak daude, nahiz eta batzuek ez bete definizioko ezaugarri guztiak. Alde batetik, erabateko oinarrizko errenta dago, ezaugarri guztiak betetzen dituena. Bestetik, ezaugarri guztiak betetzen ez dituzten ereduak daude eta oinarrizko errenta partziala deitzen zaie. Betetzen ez den ezaugarrietako bat kopuru egokiarena izan daiteke, eredu partzial batean zenbatekoa pobrezia-aren atariaren azpitik kokatuko litzatekeelako. Eredu hau ezarpenaren lehen urteetan edo aurretik zeuden diru-laguntzak ezabatzen ez direnean ezarri daiteke. Horrez gain, beste eredu partzial batean ez da unibertsaltasunaren ezaugarria beteko, oinarrizko errenta jasotzeko baldintzaren bat bete beharko baita (Noguera, 2002).

Oinarrizko errentaren inguruan dagoen ziurgabetasuna oso handia da. Orain arte esperimentu ezberdinak egin badira ere, askotan ez zaie behar bezalako jarraipena egin edo ez dira modu egokian planteatu. Izan ere, esperimentu egoki batek lau baldintza bete behar dituela esaten da: unibertsala, zorizkoa, epe luzeko iraupena duena eta zenbateko egokia duena izan behar du. Orain arteko esperimentu guztiei baldintzaren bat betetzea falta izan zaie eta ia gehienetan iraupenarena izan da, iraupen laburrekoak izan baitira. Beraz, zaila da jakitea zer gertatuko den egunen batean diru-sarrera hau ezartzen bada (Flowers, 2016).

2.2. KONTZEPTUAREN SORRERA ETA AZKEN URTEETAKO BILAKAERA

Oinarrizko errentaren ideia ez da gaur egunekoa. Orain dela mende batzuk ideia honen inguruan hitz egiten bazen ere, azken urteetan asko izan dira bere inguruan aritu diren adituak, egin diren proposamenak eta ekimenak eta erakunde batzuk ere sortu dira.

2.2.1. MUNDU MAILA

XVI. mendean, hainbat humanista sarrera minimoen ideien inguruko argitalpenak egin hasi ziren, gobernuak hiritar guztiei sarrera minimo bat bermatu behar ziela adieraziz. Johannes Ludovicus Vives da ideia horren sortzaile nagusia, gai horren inguruan idatzi eta eskemak egin zituelako. 1526an, *De Subventionem Pauperum* idatzi zuen: Brujas-eko alkateari zuzendua zen eta hiritar pobreei sarrera minimoak bermatu behar zitzaizkiela proposatzen zuen. Hortik aurrera, hainbat pentsalari gobernuak pobreei laguntzak nola emango zizkien pentsatzen hasi ziren. Ideia hauek garatu ahala, gaur egun ezagutzen ditugun sarrera minimoen programak agertu dira. (Birnbau & Widerquist, d. e.).

1776an, Thomas Jefferson-ek egindako proposamena pobreei diru-sarrera bermatzea helburu zuen lehen programatzat hartzen da. Bere esanetan, lurra lantzeko prest zeuden, baina horretarako lurrik ez zuten pertsonen, lur-sail publikoen 50 akre lur eman behar zitzaizkien (Shafarman, d. e.).

Antoine Caritat izan zen hiritar guztiei diru kopuru bat eman behar zitzaizkiela adierazi zuen lehena (Birnbau & Widerquist, d. e.). Thomas Paine-k garatu zuen bere ideia 1795ean argitaratutako *Agrarian Justice* obran. Liburu horretan adierazi zuen 21 urte betetzen zituen pertsona bakoitzari 15 libra esterlina ordaindu behar zitzaizkiola eta 50 urte baino gehiago zituztenei urtero 10 libra esterlinako diru-sarrera eman behar zitzaizkiela. Hori guztia finantzatzeko lur sail pribatuen jabeek ordaindutako zergekin osatutako diru-poltsa bat erabiliko zen. Lurraren jabetza gutxi batzuen esku zegoela ikusita, finantzaketa sistema honen

bidez, jabetzarik ez zuten guztiek, horren truke, lur-sailen jabeek ordaindutako diru-sarrerak jasoko zituzten (Shafarman, d. e.).

XX. mendean, oinarrizko errentaren inguruko eztabaida areagotu egin zen. Ondorengo hauek dira, besteak beste, ideia hau defendatu zuten autoreak eta egin ziren ikerketa eta proposamenak (Shafarman, d. e.):

- ❖ Oinarrizko errenta defendatu zuten filosofoen artean Bertrand Russell britainiarra dugu. 1918an, hiritar guztiei euren oinarrizko beharrak asetzeko diru-sarrerak eman behar zitzaizkiela adierazi zuen eta gizartearentzat baliagarriak ziren ekintzak egiten zituztenek errenta altuagoa jaso behar zutela.
- ❖ 1948an, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuen eta hainbat artikulutan ondorioztatzen da oinarrizko errentaren eskubidea. Martin Luther King-ek ere diru-sarrerak bermatzea eskatu zuen, pobreziarekin amaitzeko modurik egokiena zelako eta hiritarren duintasuna handituko zelako oinarrizko errentak ematen duen segurtasun ekonomikoari esker.
- ❖ 1949an, Peter Drucker-ek *The New Society* liburuan proposatu zuen baldintza ekonomikoen arabera aldatuko zen diru-sarrera minimo bat bermatzea hiritar guztiei, langileei segurtasun handiagoa emango zielako.
- ❖ Ekonomialariei dagokionez, 1962an, Milton Friedman ekonomialariak *Capitalism and Freedom* liburua idatzi zuen. Errentaren gaineko zerga negatiboa pobreenei laguntzeko modurik egokiena zela adierazi zuen, horren bidez eskudirua jasoko zutelako. Zerga honen bidez, kopuru bat zehazten da eta kopuru hori baino gutxiago jasotzen dutenek ondorio hauek dituzte: gobernuak dirua ematen die eta ez dituzte zergak ordaindu behar. John Kenneth Galbraith ekonomialariaren ustez, hiritar guztiei diru-sarrera minimoak bermatzea zen pobrezia aurre egiteko modurik egokiena. James Tobin ekonomialaria ere diru-sarrera bermatuen alde agertu zen.
- ❖ Ikerketei dagokionez, Margaret Mead eta Erich Fromm-ek oinarrizko errentaren ezarpenak gizartean sorraraziko zituen aldaketak aztertu zituzten. Azken honek ondorioztatu zuen hiritarrek lanean jarraituko luketela, soldataz gain lan egiteko pizgarri gehiago ere badaudelako.
- ❖ Estatu Batuetako presidentek ere proposamenak egin zituzten. 1968an, Lyndon Johnson Estatu Batuetako presidentek hiritar pobreenen premiak aztertzeko National Commission on Income Maintenance Programs sortu zuen. 1969an txosten bat argitaratu zuten, eta bertan, beharra zuten hiritar guztiei eskudirutan oinarrizko diru-sarrerak emateko programa bat sortu behar zela adierazi zuten. 1969an beste presidente estatubatuar bat izan zen gai honen inguruan aritu zena. Richard Nixon presidentek orduko ongizate sistemaren ordeztu, ondorengo sistema proposatu zuen: hilean 1.600 euro jasoko zituen diru-sarrerarik ez zuen eta lau pertsonaz osatutako familia batek. Ordura arteko sistemekin, lanean hasten zen onuradunak ordainketen zati bat galdu egiten zuen eta sistema berri honekin murrizketa horiek desagertu egingo ziren. Babes handia lortu zuen proposamena izan zen, eta Ordezkarien Etxeak onartu bazuen ere, Senatuko finantza komisioak atzera bota zuen. 1968 eta 1978 artean, Estatu Batuetako zenbait estatutan diru-sarrerak bermatzeko esperimentuak

egin zituzten: estatu horietako familiei hilero dirua eman zieten, hauek pobrezia mailatik ateratzeko.

- ❖ 1974 eta 1979 artean, Mincome izeneko esperimendu bat jarri zuten abian Kanadan. Bost urte horietan, eskualde bateko hiritarrek urtero diru-kopuru bat jaso zuten. Esperimendua amaitu eta urte batzuk geroago hasi ziren emaitzak aztertzen. Diru-sarrerak jaso zituztenen eta ez zituztenen osasun egoera alderatu zuten eta ikusi zuten esperimenduan parte hartu zutenek askoz ere osasun hobea izan zutela epe horretan. Horrez gain, askok pobrezia atariaren gaineratik kokatzea lortu zuten eta lana utzi zutenen kopurua oso txikia izan zen (Flowers, 2016).
- ❖ Oinarrizko errentaren ideia ezagutzan izugarritzko garrantzia izan zuen Philippe Van Parijs eta Robert Van der Veen-ek 1986an argitaratu zuten *A Capitalist road to Communism* artikulua (Raventós, 2006). Van Parijs irakasle, ekonomialari eta filosofoa da oinarrizko errentaren inguruko liburuak idatzi ditu, esaterako, 1992an *Arguing for Basic Income: Ethical foundations for a radical reform* idatzi zuen, eta 1997an, *Real Freedom for all: what (if anything) can justify capitalism* (Shafarman, d. e.).

XXI. mendearen hasieran, oinarrizko errentarekin erlazionatutako ekintza hauek egin dira:

- ❖ 2001eko urtarrilean, Estatu Batuetako aurrekontuan superabita zegoela ikusita, hainbat kongresistak, superabita irauten zuen bitartean hiritar guztiei urtero 300 dolarreko dibidendua emateko eskaera egin zuten. Hainbat erakunde batu ziren eskaera honetara, baina azkenean dibidendu hori errentaren gaineko zerga ordaintzen zuten pertsonen bakarrik emango zitzaizela erabaki zuten. Hurrengo urteetan ere, oinarrizko errentarekin zerikusia duten bi proposamen egin ziren. Horietako bat haurrei zuzenduta zegoen eta 18 urterekin bakoitzak ordura arte jasotako diruarekin zer egin nahi zuen erabakitzeko aukera izango zuen. Beste proposamenak oinarrizko errenta bat proposatzen zuen zergen aitortzea egiten zutenentzat, euren ezkontideentzat eta adin-txikiko seme alabentzat. Nahiz eta bi proposamenek interes handia piztu, ez ziren inoiz onartu (Shafarman, d. e.).
- ❖ 2004ko urtarrilean, hiritar guztiek sarrera minimo bat jasotzeko eskubidea zutela adierazten zuen lege bat onartu zuten Brasilen, hori egin zuten lehen herrialdea bihurtuz. Eduardo Matarazzo Suplicy ekonomialaria oinarrizko errentaren alde agertu zen eta prozesu horretan parte hartze handia izan zuen (Shafarman, d. e.).
- ❖ 2007ko urrian, Mexikon Kulturaren Foroa ospatu zuten eta Giza-eskubide Sortuberrien Adierazpen Unibertsala onartu zuten. Adierazpeneko puntuetako batek zioen hiritar guztiek bizitza duina bermatuko dien oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea dutela (Raventós, Yanes, & Lo Vuolo, 2010).
- ❖ Suitzan oinarrizko errentari buruzko erreferenduma egin zuten 2016ko ekainaren 15ean, gai honi buruzko erreferenduma egiten duen lehen herrialdea bihurtuz. Ekimenaren aldekoek 2.500 franko suitzar proposatzen zituzten helduentzat eta 625 franko suitzar haurrentzat. Eurotan, 2.260 euro eta 565 euro dira, hurrenez hurren. Behin oinarrizko errenta ezarrita, hiritarrentzat dauden diru-laguntzak kentzea aurreikusten zuten. Txikia izan zen, ordea, oinarrizko errentak erreferendumean jaso zuten babesa. Hiritarren %46ak bozkatu zuten eta horietatik gehiengoa oinarrizko

errentaren aurka agertu zen, %23,1ak bakarrik eman baitzuen aldeko botoa (La Marea, 2016).

2.2.2. BASIC INCOME EARTH NETWORK

Oinarrizko errentaren mundu mailako erakundea 1986an sortu zen. Erakunde honen web orrialdearen arabera, bere helburua “oinarrizko errentarekin konprometitu eta interesatuta dauden banako eta taldeen arteko bitartekari izatea da (...) eta Europa osoan gai honen inguruko eztabaida informatu bat bultzatzea”. 2004an, Basic Income Earth Network (BIEN) izena hartu zuen eta bere lan eremua mundu osora zabaldu zuen (Basic Income Earth Network [BIEN], d. e.).

Nahiz eta 1986an sortu, bere abiapuntua 1983an kokatzen da. Urte horretan oinarrizko errentaren ideia eta bere ondorioak aztertzeke hiru gaztez osatutako talde bat sortu zen. Charles Fourier Kolektibo izenez ezagutzen zen taldea eta partaideak Paul-Marie Boulanger, Philippe Defeyt eta Philippe Van Parijs ziren.

Lehiaketa batean sari bat eskuratu zuten eta jaso zuten diruarekin bilera bat ospatu zuten 1986ko irailean Louvain-la-Neuve hirian. Oinarrizko errentari buruz nazioartean ospatutako lehen batzarra izan zen eta bertan gainerako herrialdeetan oinarrizko errentaren ideia aztertzen ari ziren 60 gonbidatu izan ziren. Bilera horren amaieran, asoziazio bat sortzea proposatu zuten eta Basic Income European Network izena jartzea erabaki zuten.

Ordutik aurrera, erakunde honek bi urtez behin kongresuak egiten ditu eta ekitaldien eta argitalpenen inguruko buletinak ere argitaratzen ditu. Gainera, 2000 urtetik aurrera NewsFlash jasotzen dute harpidedun guztiek eta oinarrizko errentaren inguruan idatzi eta egin diren liburu eta dokumentuak gordetzen dituen artxibo bat du Louvain-la-Neuve hirian.

Erakunde honek oinarrizko errentaren 29 sare nazional eta eskualdeko bi filial ditu: Europa, Hegoaldeko Afrika, Argentina, Australia, Austria, Belgika, Brasil, Kanada, Kanada-Quebec, Txina, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, India, Irlanda, Italia, Japonia, Mexiko, Herbehereak, Zelanda Berria, Norvegia, Portugal, Eskozia, Eslovenia, Hego Korea, Espainia, Suitza, Taiwan, Erresuma Batua eta Estatu Batuak.

Horrez gain, Red Renta Básica oinarrizko errentaren espainiar erakundeak, Espainiako Instituto de Estudios Fiscales-ek eta Basic Income Earth Network erakundeak, U.S. Basic Income Guarantee Network-ek lagunduta, Basic Income Studies (BIS) izeneko aldizkaria sortu zuten. Ez da oinarrizko errentari buruz bakarrik aritzen, pobrezia edo ongizate unibertsala bezalako gaiak ere lantzen baitira aldizkari honetan (BIEN, d. e.).

2.2.3. EUROPAR BATASUNEN EKIMENA

Europar Batasunean oinarrizko errentaren aldeko ekimen bat izan da azken urteetan. 2011an, Vienan oinarrizko errentaren inguruko bilera bat egiten ari zirela, oinarrizko errentaren aldeko Europar Hiritarren Ekimen (European Citizen's Initiative, ECI) bat martxan jartzea erabaki zuten. Azken hamarkadetan, herrialde desberdinetan oinarrizko errentaren alde lanean jende asko ari zela ikusten zuten, baina ez zutela inolako arrakastarik lortzen. Hori dela eta, Europa mailako ekimen baten beharra ikusi zuten, horrela guztiak elkarrekin ariko baitziren lanean.

Ekimenarekin hasi eta gutxira, Bruselako parlamentuan elkartu ziren Europar Batzordeari aurkeztuko zioten testua zehazteko, eta geroago testua aurkeztu bazuten ere, Batzordeak

atzera bota zuen. Taldeak ez zuen amore eman eta bigarren ekimen bat prestatzeari ekin zioten. Kasu honetan, Europar Batzordeak onartua izan zen 2013ko urtarrilaren 14an.

Behin ekimena onartuta, urtebeteko epean milioi bat sinadura lortu behar zituzten. Gainera, zazpi estatutan sinaduren kopuru minimo bat lortu behar zuten, eta horretarako, herrialde bakoitzak sinadura kopuru minimoa zehaztuta zuen. Beharrezko sinadurak lortuz gero, Europar Batzordeak ekimena aztertu eta Parlamentuan eztabaidatuko beharko zuten.

Sei herrialde bakarrik izan ziren sinaduren kopuru minimo hori gainditzea lortu zutenak. Beraz, ez zen baldintzetako bat bete. Horrez gain, guztira 285.042 sinadura lortu zituzten eta kopuru hau beharrezkoak ziren milioi bat sinaduretatik oso urrun geratzen da. Beraz, ekimenak ezin izan zuen aurrera jarraitu (European Citizens' Initiative for an Unconditional Basic Income, d. e.).

Ekimenak iraun zuen bitartean, Europako hiri ezberdinetan bilerak egiten jarraitu zuten eta, 2014ko otsailean, Unconditional Basic Income Europe (UBIE) izeneko erakundea sortzea erabaki zuten. Bere web orrialdearen arabera, erakunde honen helburua da "baldintzarik gabeko oinarrizko errenta Europa osoan sartzea, denak duintasunez bizi daitezten eta oinarrizko errenta Gizakien Eskubide Unibertsal bezala aitortzea" (UBIE, d. e.).

2014ko ekainean, BIEN erakundeak XV. Nazioarteko Kongresua ospatu zuen Montrealen eta UBIE erakundea bere afiliatuetako bat bihurtzea onartu zuten (Jourdan, 2014).

2.2.4. ESPAINIA

Espanian, oinarrizko errentaren ideia garapena 2001. urtean hasi zen. Ordura arte, oinarrizko errentaren liburu eta artikuluak argitaratu eta komunikabideetan gai honen inguruko elkarrizketak egin bazituzten ere, hiritar gehienek ez zuten ideia honen berririk eta ezagutzarik.

2001eko otsailean, oinarrizko errentaren Espainiar erakundea sortu zen, Red Renta Básica (RRB) izena hartu zuena, eta 2002an, BIEN erakundearen afiliatu bilakatu zen. 2001ko ekainaren 8an, I. Oinarrizko Errentaren Sinposioa ospatu zen Bartzelonan eta bertan sindikatu nagusietako ordezkariak, akademikoak, mugimendu sozialetan zebiltzanak eta zenbait politikari elkartu ziren. Sinposio honen ondoren, gizarteak oinarrizko errentaren inguruan zuen ezagutza handituz joan zen. Hortik aurrera, urtero sinposio bat ospatzen da Espainiako hiri batean. Aipatu behar da, BIEN erakundeak ospatu zuen X. Kongresua Red Renta Básica erakundeak antolatu zuela eta erakunde honen IV. Sinposioa kongresu horren barnean ospatu zela.

2005eko apirilean, oinarrizko errentari buruzko lege proposamen bat aurkeztu zen Espainiako Parlamentuan. Bi urte geroago beste lege proposamen bat aurkeztu zen eta urte bereko urriaren 2an proiektu horren inguruko eztabaida izan zen Parlamentuan. Eztabaida hauen ondoren, 2009ko apirilaren 28an, Azpibatzerde Parlamentario bat sortu zen Espainian oinarrizko errenta ezartzeak nolako bideragarritasuna zuen aztertzeko (Raventós, 2011).

2013an, Legegintzako Herri Ekimen bat aurkeztu zuten Katalunian. Bere bidez, hiritarrek hilero 664 euroko errenta bat jasotzea proposatzen zuten eta errenta hau jasotzeko ezarri zituzten baldintzak 18 urte baino gehiago izatea, azken 12 hilabetetan legez Katalunian bizi izatea eta gutxienez lau hilabetez baliabiderik gabe bizi izana ziren. Proposamen hau Estatutuko artikulua batekin lotzen da, artikuluan bertan zehazten baita pobrezia egoeran dauden pertsona eta familiek oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea dutela. 2013ko martxoan, Kataluniako

Parlamentuak ekimena tramitera onartzea erabaki zuen eta ekimenaren bultzatzaileek 50.000 sinadura bildu behar zituzten ekimena Parlamentuan eztabaidatu zedin (Benítez, 2013).

Guztira 121.191 sinadura lortu zituzten eta Parlamentuan gai honen inguruko eztabaida hasi zen. Eztabaidan parte hartzen duten Parlamentuko alderdiek lehenik errenta honen (Renta Garantizada de Ciudadanía) ereduaren inguruko erabakiak hartzea erabaki zuten, kopurua erabakitzea askoz zailagoa izango zelakoan (Baiges, 2016).

2014ko urtarrilaren 15ean, Espainiako Diputatuen Kongresuan oinarrizko errentaren aldeko Legegintzako Herri Ekimen bat aurkeztu zen. Pertsona bakoitzak hilero pobrezia atariaren zenbatekoarekin bat zetorren diru-sarrera bat jaso behar zutela adierazi zuten, eta atariaren kopurua aldatu ahala, oinarrizko errentaren balioa ere aldatu egingo zela. Hasteko, 645,33 eurotan ezarri zuten balioa. Bi hilabete geroago, martxoaren 14ean, ekimen hau onartu zuten eta Kongresuan gai hori eztabaidatzeko milioi erdi sinadura bildu behar zituzten. Lortutako sinadura kopurua, ordea, txikiagoa izan zen eta ekimena bere horretan geratu zen (Iniciativa Legislativa Popular, d. e.).

Horrez gain, Podemos alderdiak oinarrizko errenta barneratu zuen 2014ko Europar Parlamenturako Hauteskundeetarako aurkeztu zuen programan. Hiritar guztientzat oinarrizko errenta proposatzen zuten eta PFEZ-ren erreforma batekin eta iruzur fiskalari aurre eginez finantzatzeko zutela gehitu zuten (Navas, 2014).

2.3. OINARRIZKO ERRENTAREN ETA GAINERAKO DIRU-LAGUNTZEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Oinarrizko errentaren kontzeptua gaur egun herrialde desberdinetan existitzen diren diru-laguntzekin nahastu daiteke. Biak diru-sarrerak dira, baina ezaugarri desberdinak dituztenez, eragin desberdina dute gizarteko hainbat aspektutan.

Hasteko, azken urteetan pobrezia aurre egiteko Renta Mínima de Inserción (RMI) izeneko laguntzak ezarri dituzte Europako ia herrialde guztietan (Raventós, 2009). Herrialde bakoitzeko programek ezaugarri ezberdinak dituzte eta alde handia dago programa batetik bestera (Fuenmayor Fernández, d. e.).

Espanian 80. hamarkadaren azken urteetan hasi ziren programa hauek ezartzen. Autonomia Erkidego bakoitza, euren hiritarrek zituzten beharrak ikusita, hauei laguntzeko programak sortzen hasi zen, eta gaur egun, Autonomia Erkidego guztiek euren programa propioa dute. Guztien helburua egoera larrian dauden familiei diru-laguntzak ematea bada ere, erkidego bakoitzean bete behar diren baldintzak eta ezaugarriak desberdinak dira.

RMI laguntzak laguntza programetako azken diru-laguntzak direla esaten da. Izan ere, jubilazio, ezgaitasun eta langabezia prestazioak amaitu ondoren hiritar hauek diru-sarrera urriekin jarraitzen badute, RMI laguntzak jaso ahalko dituzte. Gainera, onuradunek lan programetan parte hartu behar izaten dute, laguntza honen beste helburua onuradunak lan mundura bideratzea baita (Fuenmayor Fernández, d. e.).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE eta gazteleraz, Renta de Garantía de Ingresos (RGI)) da laguntza honen izena eta Lanbide-ko web orrialdean agertzen den definizioaren arabera, “oinarrizko behar pertsonal eta familiarrei aurre egiteko prestazio

ekonomikoa da, baliabide nahikoak ez dituztenentzat, lan munduan irtenbide bat bilatzen laguntzeko”.

Oinarrizko errenta jasotzeko ez da inolako baldintzarik eskatzen, baina RMI bezalako diru-laguntzak baldintza jakin batzuk betetzen dituztenek bakarrik jasotzen dituzte. Adibidez, DBG laguntza jasotzeko bete behar diren baldintzak hauek dira:

“Bizikidetzaren unitate bat osatzea eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez. (...) Benetako bizilekua Euskal Herrian eduki eta bertan erroldatuta egon izana, azken 3 urteetan etenik gabe. (...) Baliabide nahikoa ez edukitzea. (...) 23 urte baino gehiago edukitzea. (...) Lanean ari bada, lanaldi-murrizketarik ez edukitzea” (Lanbide, d. e.).

Ondoren, RMI laguntzen eta oinarrizko errentaren artean dauden desberdintasun garrantzitsuenak aipatuko dira (Raventós, 2009).

Hasteko, RMI laguntzak ez dira beharra duten pertsona guztiengana iristen, laguntza programak duen aurrekontua nahiko mugatua eta txikia delako. Oinarrizko errenta hiritar guztiek jasoko dutenez, baldintza zailetan dauden pertsona guztiek laguntza jasotzea bermatuta dago.

Horrez gain, RMI laguntzen eta langabeziaren tranparen arteko erlazioa oso estua da. Pobreziaren tranpa honako hau da: laguntzen onuradun den pertsona batek lan-eskaintza bati uko egitea, nahiago duelako laguntza jasotzen jarraitu. RMI laguntzekin hori gertatzeko aukera handiak daude. Izan ere, onuradun den pertsonak diru-laguntzak jasotzeari utziko dio lan egiteagatik soldata jasoko duelako. Posible da, ordea, soldata diru-laguntzen bidez jasotzen duena baino txikiagoa izatea. Honek guztiak iruzur fiskala ekar dezake. Izan ere, laguntzak jasotzen jarraitzeko askok ezkutatu egiten dute lan ordaindua egiten dutela. Epe laburrera diru-sarrera gehiago jasoko ditu, baina epe luzera desabantailak izango ditu, ezingo dituelako langabezia prestazioa edo jubilazioa kobratu.

Oinarrizko errentaren kasuan, langabeziaren tranpa desagertu egiten da. Ez da kontuan hartzen zeintzuk diren pertsona horrek dituen gainerako diru-sarrerak, eta beraz, lan egiten hasten den pertsona bati ez zaio oinarrizko errentaren diru-sarrera kenduko. Honela, iruzur fiskala ere murriztu egingo da, onuradunek ez dutelako ezkutatu lan ordaindua egiten dutela.

RMI laguntzek beste tranpa batekin ere badute erlazioa, zehazki pobreziaren tranparekin. Onuradunek erregulartasunez jasotzen dituzte RMI laguntza hauen ordainketak. Lanean hasten direnean, ordea, ez dute erabat ziurtatua izaten soldata erregulartasunez jasoko dutela. Horrez gain, lana galtzen duen pertsona bat laguntza hauek kobratzen hasten denerako egun asko igaro daitezke. Oinarrizko errentarekin pobreziaren tranpa ere desagertu egiten da. Izan ere, soldata eta laguntzak kobratu bitartean, diru-sarrera kopuru bat bermatuta egongo da.

Gaur egungo laguntza programetan parte hartzen duten pertsona asko lotsatuak eta seinalatuak sentitzen dira programa horietan parte hartzeagatik. Oinarrizko errentak arazo hau desagerrarazi egiten du, hiritar guztiek jasoko baitituzte diru-sarrerak.

Azkenik, RMI laguntzek administrazio kostu handiak sortzen dituzte. Programa hauetako pertsonalak onuradunak aukeratu eta etengabe euren jarraipena egin behar du, eta horrek guztiak kostu handi bat suposatzen du. Oinarrizko errentarekin administrazio kostuak txikiagoak izango dira. Izan ere, pertsonalak ez du onuradunen inolako jarraipen eta eboluziorik egin beharko eta euren lan bakarra hiritar guztiei ordainketa bat egitea izango da.

Aurrekoarekin lotuta, administrazioak etengabe aztertzen duenez onuradunek baldintzak betetzen jarraitzen duten edo ez, onuradunek euren bizitza erabat kontrolatuta dagoenaren sententzia izan dezakete. Oinarrizko errentarekin kontrol sententzia desagertu egingo da, ez delako egiaztatuta beharko pertsona bakoitzak baldintzarik betetzen ote duen edo ez.

2.4. OINARRIZKO ERRENTAREN ALDEKO ARGUDIOAK

Oinarrizko errenta defendatzen dutenen arabera, diru-sarrera horrek onura asko ekarriko lituzke. Horrez gain, hiru alternatibarekin alderatzen bada, oinarrizko errentak abantailak dituela ondorioztatzen dute.

Diru-sarrera horrek gaur egungo diru-laguntza asko ordezkatuko ditu eta administrazio kostuak ere txikiagoak izango dira. Ondorioz, askok uste dute oinarrizko errenta ezartzea gaur egungo laguntza sistemak eraginkorrago egiteko modu bat besterik ez dela (Flowers, 2016). Hala ere, hurrengo lerroetan ikusiko den bezala, oinarrizko errentak askoz ere abantaila gehiago eskaintzen ditu.

2.4.1. ALDEKO ARGUDIOAK

Dudarik gabe, oinarrizko errenta onuragarria da diru-sarrerarik jasotzen ez duten edo oso gutxi irabazten duten guztientzat, ezer ez edo oso gutxi jasotzetik hilero kopuru minimo bat jasotzera igaroko direlako (Garzón, 2015).

Oinarrizko errentaren eta gaur egungo diru-laguntzen arteko desberdintasunak aztertzean, 13. eta 14. orrietan ikusi bezala, Raventós-ek (2009) oinarrizko errentak pobrezia eta langabezia tranpa deuseztatzen dituela adierazten du eta administrazio kostuak gutxitu eta kontrol eta porrot sententzia ere murriztu egingo direla.

Pinilla-ren (2002) iritziz, urritasun ekonomiatik oparotasun ekonomiara igarotzeko ezinbestekoa da oinarrizko errenta ezartzea. Urritasun ekonomia batean, etengabe behar berriak sortzen dira eta lehen merke eta zailtasunik gabe eskura zitezkeen ondasunak eskuratzea askoz zailagoa da orain, urriak eta askoz garestiagoak direlako. Guzti horren ondorioz, naturak kalte handiak jasaten ditu eta ezin izaten zaio pobrezia aurre egin. Oparotasun ekonomiara igarotzean, ordea, hiritarren bizi-kalitatea hobetu, pobrezia amaiera eman eta naturako hondamendia murriztu egiten dira. Hala ere, egoera honetan ezingo da esan urritasunari amaiera eman zaiola, baina hiritarrek funtsezko beharrak asetzeko adina diru jasoko dutenez, urritasunak ez du lehen bezainbesteko garrantzia izango.

Gainera, garapen teknologikoaren ondorioz, hemendik 20 urtetara gaur egungo lanpostuen %25 eta %33 artean automatizatuta egongo dira. Automatizazioaren onuradun nagusiak enpresariak izango dira, mozkin handiagoak lortuko dituztelako. Makinek langileak ordezkatuko dituztenez, ordaindu beharreko soldatak murriztu eta gastuak txikiagoak izango dira. Langileak, ordea, kaltetuak izango dira, lanpostu kopurua murriztu eta diru-sarrera txikiagoak izango dituztelako (Skidelsky, 2016). Oinarrizko errentak lanpostua galdu dezaketen guztiei lagunduko die, langile hauek diru-sarrera minimoak jasoko dituztelako.

Oinarrizko errentaren abantaila hauek garrantzitsuak diren arren, abantailarik garrantzitsuena hiritarrek lortuko duten askatasuna da. Horrez gain, lan munduan eta emakumeen egoeran ere aldaketa handiak ekarriko ditu diru-sarrera honek.

2.4.1.1. ASKATASUNA

Oinarrizko errenta pertsona bakoitzari askatasun handiagoa lortzea ahalbidetzen dion tresna da (Van Parijs, 2000). Diru-sarrerara honen bidez, gizarteko pertsona guztien askatasuna lortu nahi da. Jaso ahal izateko baldintzarik bete behar ez denez, hiritar guztiek jasoko dute eta pertsona bakoitzak bere buruaren inguruko erabakiak hartzeko askatasuna lortuko du. Horrez gain, hiritar guztiek eskubide berdinak izango dituzte eta norbait beste baten menpeko izatea eragotziko du (Casassas & Raventós, 2003).

Guztien diru-sarrerak bermatuta, gizarteko talde ahul eta menperatuenean gaur egun baino independentzia sozioekonomiko handiagoa izango dute (Raventós, 2008). Azken finean, askatasun eta autonomia handiagoak autoerrealizazioa lortzeko aukera ematen die hiritarrei, euren gaitasun guztiak garatzeko aukera edukiko baitute (Ramos Martín, 2003).

Horrez gain, hiritarrek gizarteko gaien inguruan duten negoziazio boterea handitu egingo da eta arlo politikoan erabakiak hartzerako orduan parte hartze handiagoa izango dute (Pateman, 2004).

Azkenik, esan beharra dago askatasuna areagotzea lan munduan eta emakumeen egoeran emango diren zenbait aldaketekin erlazionatuta dagoela.

2.4.1.2. LAN MUNDUKO ALDAKETAK

Ramos Martín-en (2003) arabera, oinarrizko errenta jasotzeak segurtasun ekonomikoa ematen du eta lan egitea ez da ezinbestekoa. Horren ondorioz, pertsona bakoitzak askatasun handiagoa izango du lan egitearen edo gainerako ekintzen artean aukeratu ahal izateko.

Gainera, langileek gaitasun handiagoa dute egin nahi duten lan mota erabakitzerako orduan. Nahiz eta lan bat okerrago ordainduta egon, pertsona batek lan hori egitea erabaki dezake benetan hori gustatzen zaiolako. Horrela, lanaren banaketa ere aldatu egiten da, etxeko lanak edo borondatezko lana egiten dutenak gehiago izan daitezkeelako.

Aurrekoarekin lotuta, Casassas eta Raventós-ek (2003) lanaren kontzeptua zehazten dute. Lana aipatzean burura soldatapeko lana etortzen bazaigu ere, soldatapeko lana lan mota bat besterik ez da. Bi egile hauek diote lana soldatapeko lanak, etxeko lanak eta borondatezko lanak osatzen dutela. Beraz, norbaitek etxeko edo borondatezko lan bat egiten badu, ezin da esan ezer egin gabe dagoela.

Lan egiteko askatasunari dagokionez, Ramos Martín-en (2003) arabera, pertsona bakoitzak lan egiteko erabakia borondatez hartu beharko luke, baina pertsona batek bizirauteko duen aukera bakarra lan egitea bada, lan egitera behartuta egongo da. Oinarrizko errenta egongo balitz, lan egiteko arrazoi nagusia ez litzateke biziraupena izango, langileak diru-sarrerara batzuk bermatuta edukiko litzatekeelako. Beraz, lanik ez egiteko aukerak beti egon beharko luke.

Argudio horrek sor ditzakeen kritikei aurre egiteko, Robert Van der Veen eta Philippe Van Parijs-en kafe tazaren adibidea aipatzen du Ramos Martín-ek (2003: 85):

“imajina ezazu egoera bat non bi pertsonak kafea nahi duten eta bietako inork egin nahi ez duen. Egoera honi aurre egin eta kaferik gabe ez geratzeko, kafea prestatzen duenak bi taza hartzeko eskubidea duela zehazten dute (edo hitzartzen dituztenak, lanaren eta kafearen konpentsazio kurben arabera). Egoera horretan inork kaferik egin nahi ez badu, ez dute bere kafe nahia aseko, baina askatasunez onartuko dute. Bidegabetzat hartuko al da batek bakarrik lan egitea bientzat?”

Ondoren, bi autoreen hitz batzuk aipatzen ditu:

“zer dauka bidegabetik besteen lanetik bizitzeak denei aukera berdina eskaini bazaie? Aukera honen aurrean batzuk lan ordaindu pixka bat egitea edo ezer ez egitea erabakiko dute, beste batzuek lan asko egitea erabakitzen duten bitartean, diru gehigarriagatik edo lan egiteko plazerragatik, guztien diru-sarrera unibertsalak finantzatzuz” (Ramos Martín, 2003: 86, aipatua).

Pinilla-ren (2002) arabera, oinarrizko errentarekin soldata ez da lan egiteko pizgarri nagusia izango eta norberaren lehentasunek izango dute lan mota bat aukeratzeko orduan garrantzia gehien. Horren ondorioz, mikroenpresen edo autonomoen gorakada izan daitekeela eta denbora aurrera joan ahala erakargarriak ez diren lanak automatizatu egingo lirakekeela uste du.

Gainera, pertsona bakoitzak nahi duen lanpostuan aritzeko eskubidea eduki beharko luke, baina askotan beste lan bat aukeratu behar izaten da beharagatik edo soldatapeko lana ez izateagatik (Ramos Martín, 2003). Oinarrizko errentarekin, soldatapeko langile bakoitzak lanpostu horretan jarraitzeari buruzko erabakia hartu beharko du, kontuan hartuta diru-sarrerak jasoko dituztela euren lan egoera edozein dela ere. Erabaki hori hartzerako orduan garrantzia handia du lan horretan langilea gustura sentitzen den edo ez. Horrela, bere lanpostuarekin gustura ez dagoen langileak bere lana utziko du eta hileroko diru-sarrerak jaso eta gustuko dituen ekintzak egin ahalko ditu (Garzón, 2015).

Lanpostua aukeratzeko orduan ere abantailak ematen ditu oinarrizko errentak. Langileek soldata txikiagoa edota lanaldi partziala eskaintzen dituen lanpostu batean aritzeko aukera gehiago dituzte, nahiz eta gutxiago irabazi eta ordu gutxiagoz aritu, irabazten duten soldatari diru-sarrera gehigarri bat gehituko zaielako (Van Parijs, 2000).

Aurrekoarekin lotuta, gaixotasun psikiatrikoak dituzten pertsona askok arazoak izaten dituzte lanaldi osoko lan bat egiteko. Pertsona horiek ordu gutxiagoko lanpostu batean hasi daitezke oinarrizko errentari esker (Raventós, 2005). Agian soldata txikiagoa irabaziko dute, baina oinarrizko errentaren dirua ere jasoko dute eta euren buruko osasuna ez da kaltetuko.

Raventós-ek (2005) dio mota honetako gaixotasunak dituzten pertsonen lan munduan sartu nahi izaten dutela, lan eginda gizarteari ekarpen bat egiten diotela ikusi, euren autoestima handitu eta gizartean integratzen direlako. Hala ere, gaixo hauen langabezia-tasa oso altua izaten da euren inguruko aurreiritzi edo aurretik izandako lan esperientziek sortutako beldurragatik, besteak beste. Autore honen iritziz, oinarrizko errenta jasotzea egokia izan daiteke pertsona horiek pixkanaka lan mundura gerturatzen hasteko.

Horrez gain, oinarrizko errentarekin enpresarien eta langileen negoziazio modua ere aldatu egingo da. Enpresaria izango da botere gehien mantenduko duena, baina langileak lehen baino botere gehiago izango du, lana onartzen ez badu ere diru-sarrera bat jasoko duelako. Honek guztiak eragina izango du baldintza txarrak dituzten lanetan, langileak diru-sarrera bermatu bat izanda, ez delako behartuta egongo edozein lan onartzera. Honek, ezinbestean, baldintza txarreko lanak erakargarriago egiteko lan hauen soldata handitzea ekartzen du (Ramos Martín, 2003).

Van Parijs (2004) ere iritzi berekoa da. Bere ustez, oinarrizko errentarekin hiritarrek aukera izango lukete lanpostu onen eta txarren arteko bereizketa egiteko. Gaur egun, lan mota batzuk oso baldintza txarrekoak dira eta beste batzuk oso aberasgarriak dira, batzuetan gutxi ordaindu arren formazio garrantzitsua lor daitekeelako. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek

aukera dute baldintza oneko lana aukeratzeko, horrela baldintza txarreko lanei amaiera emanaz.

Azkenik, lan munduarekin erlazionatutako beste bi onura azpimarratu behar dira:

- ❖ Ekintzaileek gaur egun baino abantaila gehiago izango lituzkete oinarrizko errentarekin. Ekintzailearen negozioa gaizki badao, egindako inbertsioa galduko du, baina kasu batzuetan bere aurrezki guztiak ere gal ditzake. Oinarrizko errentarekin, diru kopuru bat bermatua izango lukete eta ez lukete euren negozioarekiko hainbesteko dependentziarik izango. Horrez gain, oinarrizko errentarekin jasotako dirua negozio berri bat martxan jartzeko ere erabili daiteke, askotan hasierako inbertsioa egiteko zailtasunak izaten baitira (Ramos Martín, 2003).
- ❖ Gaur egun erretiratu ondoren jubilazioa jaso nahi dutenek aurretik Gizarte Segurantzari ordainketak egin behar dizkiote. Soldatapeko lanik egiten ez dutenek, ordea, ez dute ordainketarik egiten eta ez dute laguntza hauek jasotzeko aukerarik izango. Oinarrizko errentarekin, jasotzen duten diru hori etorkizunerako gorde ahal izango dute (Schlevitz, 2016).

2.4.1.3. EMAKUMEEN EGOERAREN HOBEKUNTZA

Soldatapeko lana egiten dutenak, aseguru sistemetan ekarpenak egiteaz gain, gizarteak lehen mailako hiritar balira bezala hartzen ditu. Aldiz, etxeko lanak egitea edo gainerakoak zaintzea ez dira lan bezala kontuan hartzen. Gaur egun, etxe gehienetan emakumeak dira lan hauek egitez arduratzen direnak (Pateman, 2004). Honen ondorioz, emakume askok ezin izaten dute etxetik kanpo lan egin, eta lan bat aukeratzeko orduan, gizonak baino aukera gutxiago izaten dituzte (Van Parijs, 2000).

Etxeko lanak edo zaintza lanak egiten dituztenek horien truke soldatarik jasotzen ez dutenez, edozein ekintza egiteko familiako gainerako kideek jasotzen dituzten diru-sarreraren zati bat erabili behar izaten dute.

Emakume batzuk sozialki beste batzuk baino egoera hobekoan badaude ere, ezin da ukatu askok gaur egun baino independentzia ekonomiko handiagoa izango luketela oinarrizko errentari esker.

Oinarrizko errenta hiritar bakoitzak jasotzen du eta honek emakume askoren egoera ekonomikoa hobetzea ekarriko du. Izan ere, gaur egun jasotzen diren diru-laguntza asko familiari osoari zuzenduak izaten dira, eta batzuetan familiako kide ahulenek, normalean emakumeek, ezin izaten dituzte erabili. Horrez gain, emakumeek negozioazio ahalmen handiagoa lortu dezakete euren etxean (Raventós, 2008).

Schlevitz-en (2016) arabera, feministek oinarrizko errenta babesteko adierazten dute, diru-sarrerara honekin etxeko lanez eta seme-alabez arduratzen diren emakumeek egindako lanaren ordainsaria jasoko dutela. Bere ustez, oinarrizko errentak kontuan hartzen du badirela gainerakoei laguntzen saiatzeagatik soldatarik jasotzen ez duten emakumeak, eta baita gizonak ere. Gainera, oinarrizko errentarekin lortutako diru-sarrerak jasotzen dituen emakumearenak izango lirake eta menpekotasun egoeran bizi direnek askoz ere askatasun handiagoa izango lukete nahi dutena egiteko.

2.4.2. HIRU ALTERNATIBAREKIKO DITUEN ABANTAILAK

Errentaren gaineko zerga negatiboa eta ordainketa bakarraren ideia oinarrizko errentaren alternatiba bezala aurkezten dira. Oinarrizko errentak, ordea, bi alternatiba hauekiko abantailak ditu (Van Parijs, 2000).

Errentaren gaineko zerga negatiboarekin, 8. orrian aipatu bezala, pertsona batek ordaindu behar duen zerga kopurua negatiboa bada, gobernuak kopuru hori itzuli egingo dio. Oinarrizko errentarekin alderatzen bada, oinarrizko errenta egokiagoa dela ikus daiteke (Van Parijs, 2000):

- ❖ Errentaren gaineko zerga negatiboarekin, onuradunek diru-sarrerak errentaren aitortpena egin ondoren jasotzen dituzte. Pobreak diren hiritarrak pobreak dira urte osoan zehar eta askok ezingo dute urte osoa itxaron diru-sarrerarik jaso gabe. Horregatik, urtean zehar diru-laguntzak emateko programak ezarri beharko dira. Oinarrizko errentarekin, urte osoan zehar jasoko dituzte diru-sarrerak eta ez da beste programarik ezarri beharko.
- ❖ Errentaren gaineko zerga negatiboa familia bakoitzari ordaintzen zaio eta zenbait etxetan familia kide batzuek ez dute diru hori erabiltzeko aukerarik izango. Oinarrizko errenta, aldiz, indibiduala da eta kide bakoitzak kopuru berdina jasoko du.
- ❖ Oinarrizko errenta egokiagoa da pobreziaren eta langabeziaren tranpei aurre egiteko, lana aurkitu bitartean edo soldata jaso bitartean diru-sarrerak jasotzen jarraitzea ahalbidetzen duelako.

Ordainketa bakarraren kontzeptua Thomas Paine-k aipatu zuen orain dela mende batzuk (7. orria) eta duela urte batzuk Bruce Ackerman eta Anne Alstoot autoreek *The Stakeholder Society* liburuan defendatu zuten (Van Parijs, 2000). Izenak dioen bezala, ordainketa bakarrarekin adin nagusiko bihurtzen den gazteei diru guztia aldi berean emango zaie eta nahi duten moduan erabili ahalko dute (Pateman, 2004).

Diru guztia aldi berean emanda, arrisku handi bat dago: askok ez lukete dirua ondo kudeatzen jakingo eta berehala gastatuko lukete. Ondorioz, diru-sarrera urriak izan ditzakete euren bizitzako urte gehienetan, kasu batzuetan pobrezia egoeraraino iritsiz. Oinarrizko errentarekin aldizkako diru-sarrerak jasoko dituzte eta ez dira hain egoera larrian egongo. Gainera, ordainketa bakarraren ondorioz pobrezia egoeran geratu direnei laguntzeko programak ezarri beharko dira eta oinarrizko errentarekin ez dago horien beharrik (Van Parijs, 2000). Pateman (2004) ere oinarrizko errentaren aldekoa da, diru-sarreraren eta soldatapeko lanaren arteko loturari amaiera emateko egokiagoa dela uste duelako.

Aurrekoetz gain, badira oinarrizko errentaren ordeztu lan bermatua (gaztelera, trabajo garantizado) ezarri behar dela diotenak. Lan bermatuaren bidez, lan egin nahi duten guztiei Estatuak lanpostu bat bermatuko die.

Biak alderatzean oinarrizko errentak abantailak dituela ikus daiteke (Coelho, 2017):

- ❖ Lan bermatuarekin askoz ere hiritar gutxiagori laguntzen zaie. Izan ere, lan egin nahi duten guztiek lan egiteko aukera izango dute, baina lanean ari direnek eta lanik egin nahi ez dutenek ez dute inolako onurarik jasoko. Aldiz, oinarrizko errentarekin hiritar guztiek diru-sarrerak jasoko dituzte.

- ❖ Lan bermatuarekin administrazio kostuak handiagoak izango dira, Estatuak guztientzako lanpostuak sortu eta lan horietarako egokienak diren langileak aukeratu beharko direlako.

2.5. OINARRIZKO ERRENTAREN AURKAKO ARGUDIOAK

Oinarrizko errentaren aldekoak asko diren arren, proposamen hau gustuko ez dutenak ere badaude. Hainbat autore kritiko agertu dira: bere ezarpenaren aurkako argudioak aipatu dituzte eta ekarriko lituzkeen ondorioak kaltegarriak izango direla azpimarratzen dute.

2.5.1. AURKAKO ARGUDIOAK

Ramos Martín-ek (2003: 83-84) oinarrizko errentari egiten zaizkion zenbait kritika aipatzen ditu:

“alferkeria eta parasitismoa pizten ditu, ez dio lanean sexuen artean dagoen banaketari amaiera ematen, gizartean ekarpenik egiten ez dutenei zati bat eskuratzea ahalbidetzen die, onuradun askok ez dakite zer egin euren denbora librearekin, inork egin nahi ez dituen soldatapeko lanak egotea ahalbidetzen du, (...) herrialde edo zonalde aberatsenatarako pentsatuta dago, finantzaketa kostu oso handiak suposatzen ditu, oinarrizko errenta txikia bada bere onurak galtzen dira eta aurreikusi ezin diren egoerak sorraraziko ditu”.

Aurrekoarekin lotuta, elkarrekikotasuna oinarrizko errentari egiten zaion kritiketako bat da. Printzipio horrek dio lan egitea ezinbestekoa dela trukean diru-sarrerak jaso nahi badira. Oinarrizko errentak ez duenez lan egoera kontuan hartzen, lanik egiten ez dutenek ere diru-sarrerak jasoko dituzte trukean ezer egin gabe (Van Parijs, 2000).

Oinarrizko errentari egiten zaion beste kritika bat etxeko eta zaintza lanekin loturikoa da. Askoren ustez, emakume gehienak euren soldatapeko lanak utzi eta etxeko lanak egitera zuzenduko dira, diru-sarrera jakin bat ziurtatuta izango dutelako. Horrek emakume askok lortu duten askatasuna izugarri murriztuko lukeela adierazten dute (Pateman, 2004).

Horrez gain, hiritar guztiei oinarrizko errenta ematea dirua alferrik gastatzea dela diotenak ere badira. Hiritarren kopuru handi batek ez du laguntza honen beharrik eta beharra dutenei bakarrik ematea askoz egokiagoa dela diote (Meyer, 2016).

Gainera, diru-sarrera hau herrialde batzuetan bakarrik ezarriko balitz, gainerako herrialdeetan bizi direnek herrialde horietara joateko pizgarri gehiago izango dituzte. Ondorioz, herrialde batera iritsitako etorkin kopurua handitu egin daiteke. Hori ekiditeko etorkinek oinarrizko errentarik ez jasotzea erabaki daiteke, baina egoera honetan abantaila gehiago lortuko dituzte aldi batean lanean aritu direnek, herrialde horretan urte luzez bizi diren etorkinek baino (Galston, 2000).

Horrez gain, oinarrizko errentarekin hiritar guztiek diru kopuru bera jasoko dute, baina denek ez dute erabateko askatasuna lortuko, guztiek ez dituztelako behar berdinak. Adibidez, lan egin nahi duten bi pertsona daude eta bietako batek bere familiako kide bat zaintzen du. Inor zaintzen ez duen pertsonak erabateko askatasuna izango du lan egiteko. Aldiz, besteak ez du lan egiteko erabateko askatasunik, familiako kide hori zainduko duen norbait aurkitzen ez badu ezingo duelako lanik egin. Bi kasu hauek kontuan hartuta, oinarrizko errenta bera jaso arren, askoz ere askatasun handiagoa izango luke lehenengoak berak nahi duena egiteko (Anderson, 2000).

Automatizazioa dela eta, lanpostu kopurua murriztu egingo dela esaten da. Meyer-en (2016) ustez, nahiz eta lanpostu kopurua jaitsi, hiritar gehienek lanean jarraitu ahalgo dute. Izan ere, lanorduak murriztu eta lanpostu berean pertsona bat baino gehiago arituko dira. Oinarrizko errentari esker, diru-sarrerak bermatuta edukiko dituzte lanean jarraitzeko aukera ez duten guztiek. Lan egitean, ordea, ez da soldata bakarrik jasotzen, lankideekin sortutako erlazio estuek ere garrantzia handia dute. Ondorioz, oinarrizko errentak dirua bakarrik ematen duela ikusita, ez da lanean jasotzen denaren ordezkoko egokia.

Azkenik, oinarrizko errentak ez dio amaiera emango errenten arteko desberdintasunari. Lanpostu kopurua izugarri murrizten bada, gutxi batzuek bakarrik izango dute lan egiteko aukera. Ondorioz, lan egiten dutenek diru-sarrera handiagoak izango dituzte eta gainerakoek oinarrizko errentaren zenbatekoa bakarrik jasoko dute. Beraz, pobreenen diru-sarrerak ez dira hain baxuak izango eta horrek errentaren zenbatekoa handitzea ekarriko du, baina errenten desberdintasunak bere horretan jarraituko du (Meyer, 2016).

2.5.2. DESOREKA EKONOMIKOAK

Garzón-ek (2015) oinarrizko errentak ekarriko dituen ondorio kaltegarriak aipatzen ditu. Gustuko lanean ari ez diren langileek euren postua uzteko aukera duten arren, bere ustez, langile askok lanean jarraituko lukete, nahiz eta ez izan bere gustuko lana, hileroko gutxi gorabehera 1.250 euroko soldata jasoko balute. Enpresa askotan soldatak handitu behar direnez, arazo bat sortzen da: enpresa handiek ez lukete arazorik izango langileei soldatak handitzeko, baina enpresa txiki askok ezingo lukete.

Gaur egun, langile gehienek 1.250 euro baino gutxiago irabazten dituztela ikusita, gehienek lanean ez jarraitzea erabakiko dutela pentsa daiteke. Horren ondorioz, enpresa askok euren bezeroak galdu eta sarrera eta irabazi gutxiago izango dituzte. Horrela, Espainiako produkzioan aldaketak izango dira: ondasun eta zerbitzuen eskaintza ez da lehen adinakoa izango eta errenta eta aberastasuna ere murriztuko dira. Oinarrizko errenta errentaren gaineko zergari esker finantzatzen bada, errentaren murrizketak ez lioke mesederik egingo.

Hiritar pobreenek lehen baino diru-sarrera altuagoak edukiko dituzte eta eskaria handitu egingo da, baina eskura daitezkeen ondasun eta zerbitzuen kopurua txikiagoa denez, saltzaileek prezioak igo eta inflazioa agertzen da (Garzón, 2015). Horren ondorioz, hiritarrik txiroenen egoera ez litzateke hobetuko, nahiz eta diru-sarrera gehiago izan, ondasun eta zerbitzuen prezioa lehen baino altuagoa izango baita. Gainera, ekonomiaren egoera aldatu arren oinarrizko errentaren kopurua ez da aldatuko eta horrek hazkunde garaian inflazioa sorraraziko luke (Garzón, 2014).

Horrez gain, Espainiako produkzioa murriztuta, atzerriko herrialdeetatik falta diren ondasun eta zerbitzuak esportatu beharko lirateke, atzerriko herrialdeekiko duen zorra handituz (Garzón, 2015).

Garzón (2015)-ek hiritarrek 2015eko errentaren gaineko zergarekin eskuratuko luketen irabazi garbia eta oinarrizko errentarekin lortuko luketen irabazi garbia alderatu zituen. Azken balio hau kalkulatzeko, 2014ean Arcarons, Domènech, Raventós eta Torrens autoreek oinarrizko errentaren finantzaketari buruzko ereduari zehaztu zituzten datuetan oinarritzen da: errentaren gaineko zerga %50ekoa izango da eta pertsona bakoitzak hileroko 625 euro jasoko lituzke. Muga 1.700 kopuruan kokatzen dela adierazi zuen: kopuru hori baino gutxiago jasotzen dutenek oinarrizko errentarekin diru-sarrera altuagoak izango dituzte eta kopuru hori edo

gehiago jasotzen dutenek, berriz, sarrera altuagoak izango dituzte oinarrizko errentarik ezarriko ez balitz.

Lan egiten jarraitzea erabaki dutenen eta 1.700 baino gutxiago irabazten dutenen kasuan, oinarrizko errenta ezarrita enpresari askok langileen soldata jaitea erabaki dezakete. Hori hobeto azaltzeko ondorengo adibidea erabiltzen du Garzón-ek (2015: 70-71):

“900 euro gordineko soldata du. Gaur egun, bere irabazi garbia 900 euro izango litzateke, eta oinarrizko errentarekin 1.075 euro garbi jasotzera igaroko litzateke (175 euro gehiago). Kasu honetan, enpresariak soldatagatik gutxiago ordaintzeko pizgarriak izango lituzke, nahiz eta 900 ordaindu beharrean 800 ordaindu, langilearen sarrera 1.025 izango litzateke oinarrizko errentari esker, lehen irabazten zituen 900 baino gehiago, modu horretan enpresariak eta langileak irabaziz. Soldata 600 euro tara ere jaitsi ahalko luke, soldatapeko langileak oinarrizko errenta aplikatu aurreko egoeran baino diru gehiago jasotzen jarraituko bailuke: 925 euro”.

Ondorioz, zenbait langilek soldata txikiagoak jasoko dituzte enpresarien mesedetan eta soldata altuagoa eskaini ezin duten enpresa asko itxi egingo dira, horrek produkzio murrizketa, inflazioa eta kanpo zorra handitzea ekarritik, besteak beste.

2.5.3. ALTERNATIBAK

Garzón-ek (2014) oinarrizko errenta beharrean lan bermatua proposatzen du. Langileak behar dira gizartearen baldintzak hobetuko dituzten ekintzak egiteko, adibidez, pertsonak edo hiria eta bere ingurunea zaintzeko. Lan egin nahi duten asko langabezia daudela ikusita, egokiagoa izango litzateke pertsona hauei guztiei lanpostu bat bermatzea eta gainerako guztiei oinarrizko errenta ematea.

Lan bermatuarekin ondasun eta zerbitzuen eskaintza handiagoa izango da, eskaria zertxobait handituko da, orain lan egiten dutenek diru-sarrera handiagoak izango dituztelako, eta prezioak ez dira aldatuko, ez delako soldata igo beharrik egongo. Oinarrizko errentarekin konparatuz gero, lan bermatuak inflazioan inolako eraginik ez duela ondoriozta daiteke. Horrez gain, lan bermatuak langileek soldataz gain balio eta ezagutzak lortzea ahalbidetzen du, oinarrizko errentarekin diru-sarrerak jasotzen dituzten bitartean. Etorkizunera begira, langilearentzat izugarriko garrantzia izango du lan bermatuari esker aurretik lortu duen esperientziak (Garzón, 2014).

Gainera, oinarrizko errenta jasotzen duen pertsona batek lan egitea erabakitzen badu, arazoak izan ditzake berak nahi duen lanpostua aurkitzen. Izan ere, lanpostuak ez daude bermatuta eta oinarrizko errenta jasotze hutsarekin langileak ez dituzte berak nahi duen lana egiteko ezagutza eta gaitasun guztiak lortzen (McFarland, 2016).

Meyer-ek (2016) ere lan bermatua defendatzen du. Automatizazioak lanpostuak murriztea ekarriko duenez, lan bermatua oinarrizko errenta baino askoz egokiagoa dela dio, Estatuak lana bermatuko baitie lana galdu duten guztiei. Gainera, lan bermatuarekin dirua ez da alferrik gastatuko. Programa honetara bideratutako aurrekontua lana behar dutenei lagundu eta hauei ordaintzeko erabiliko da eta beharrik ez dutenei ez zaie ezer emango.

Galston-ek (2000) dio gaur egungo arazoei aurre egiteko ez dagoela oinarrizko errenta ezarri beharrik. Langabezia eta pobrezia bezalako arazoak herrialde desberdinetan ezarri diren politika ekonomikoen ondorioak direla dio eta arazo horiei aurre egiteko modurik egokiena politika horiek aldatu edo moldatzea dela. Etxeko lanak edo borondatezko lanak egiten

dituztenen kasuan ere, oinarrizko errenta ez da ezinbestekoa, gaur egun dauden laguntza sistemak egokituz pertsona hauei laguntzea posible izango delako.

2.6. FINANTZAKETA PROPOSAMENAK

Oinarrizko errentari egiten zaion kritiketako bat finantzaketaren ingurukoa da, kostu oso handia izango duela baitiote. Pinilla-ren (2002) arabera, oinarrizko errentaren kopurua zehazteko behar maila erabiltzen denez, kopuru altua ezarriko balitz, guztia finantzatzeko arazoak egongo liriateke. Aldiz, kopurua baxua ezarrita, askok eta askok ez lukete pobrezia maila gaudituko eta laguntza programa gehiago ezarri beharko liriateke horrek dakarren kostuarekin.

Noguera-ren (2002) ustez, oinarrizko errenta finantzatzeko erreforma fiskala egin eta gaur egungo diru-laguntzak egoera berri horretara egokitu behar dira. Horrela, diru-sarrera honen ezarpenak ez du kostu gehigarri sortuko. Horrez gain, oinarrizko errenta pixkanaka ezarri behar dela adierazten du. Izan ere, aldaketa nahiko handia izango da eta sistema hori pixkanaka ezarrita hiritarrak eta erakundeak errazago ohituko dira.

Van Parijs-ek (2004) dio finantzaketa proposamen bakoitzean garbi adierazi behar dela zein izango den oinarrizko errentaren kopurua eta zein diren ordezkatu dituen diru-laguntzak. Ondoren, proposamen bakoitza zehatz-mehatz aztertu behar da lorgarria den edo ez esateko.

2.6.1. ESPAINIAKO PROPOSAMENA

Espainiar Estaturako oinarrizko errentaren finantzaketa proposamen bat egin zuten Arcarons, Domènech, Raventós eta Torrens autoreek 2014ean. Oinarrizko errenta finantzatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) erreforma proposatzen zuten. Proposamen horretan ez zituzten kontuan hartu Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa, bi erkidego hauetan zerga erregimena ezberdina baita. 2016ean, finantzaketa proposamen bera argitaratu zuten zenbait datu egokituta. Ondoren, finantzaketa proposamen hori azalduko da (Arcarons, Raventós & Torrens, 2016).

Finantzaketa proposamen honetan, oinarrizko errenta hiritarrek lortzen duten errentaren bidez finantzatu dela adierazten dute. Horrez gain, errentaren banaketa egokiago bat, diru-sarrera oso txikiak dituztenen %50ak gaur egun baino gehiago irabaztea eta ezarriko den zerga-tasa handiegia ez izatea lortu behar dute. Hori bai, PFEZ kalkulatzekoan oinarrizko errentaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko.

Oinarrizko errentaren kopurua zehazteko, 2010eko Espainiako pobrezia ataria hartu da kontuan (EAE eta Nafarroa barneratu gabe), urte horretan ekonomiaren egoera nahiko txarra zelako. Horrela, hiritar bakoitzak 7.471 euro jasoko ditu urtean eta 622,5 euro hilabete bakoitzean. 18 urte baino gutxiago dituzten hiritarrek 1.494,2 euro jasoko dituzte urtero eta hileroko 124,5 euro, zehazki helduek jasoko duten kopuruaren %20a.

Gainera, kontuan hartuko da laguntzak jasotzen dituzten hiritarrek zenbateko diru-sarrerak jasotzen dituzten. Horrela, hiritarrek jasotzen duten laguntza oinarrizko errentaren kopurua edo txikiagoa bada, oinarrizko errenta laguntza horren ordezkaria izango da. Aldiz, hiritarrek diru-sarrera handiagoa jasotzen badute, oinarrizko errenta jasotzeaz gain, aurreko kopurura iristeko falta den zatia laguntza gehigarri baten bidez jasoko dute.

Horrez gain, PFEZ-tik lortzen dena oinarrizko errenta finantzatzeko erabiliko bada ere, ezin da ahaztu zerga honen bidez arlo asko finantzatzen direla gaur egun eta etorkizunean ere zerga honen bidez arlo horiek finantzatzen jarraitu behar dela.

Azkenik, proposamen hau egiteko lagin bat erabili dutela adierazi behar da. Zehazki, ia bi milioi espainiarren (EAE eta Nafarroa barneratu gabe) PFEZ likidazioak erabili dituzte.

Finantzaketa proposamen hau egiteko, bi taldetan banatu dute Espainiako biztanleria: P-PFEZ eta P-Ez PFEZ. Alde batetik, P-PFEZ taldearen barruan daudenak dira errenta aitortpena egin dutenak, aitortpena egitera behartuta egon ez arren urtean 10.000 euro baino gehiagoko soldata jaso dutenak eta aitortpen horietan aitortzaileen menpeko pertsonak balira bezala agertzen direnak (adibidez, aitortzaileak seme-alabak edo gurasoak baditu bere kargura, hauek ere talde honetan sartuko dira). Bestetik, gainerako hiritar guztiak P-Ez PFEZ taldean sartuko dira.

P-Ez PFEZ taldeari dagokionez, 18 urtetik beherakoek urtero 1.494,2 euro eta biztanle helduek urtero 7.471 euro jasoko dituztenez, talde honen kostua 62.854,67 milioi eurokoa izango da. Proposamen hau egiterakoan, oinarrizko errenta gaur egungo zenbait diru-laguntzen ordezkia izango dela zehazten da, 22. orrian aipatu bezala. Prestazio horiek ezabatzearen ondorioz, diru aurrezki bat lortuko da, zehazki 92.222,29 milioi eurokoa. Aurrezkiak kostua baino handiagoa denez, P-Ez PFEZ taldearen oinarrizko errenta osorik aurrezkiaren bidez finantzatuko da. Behin kostua finantzatuta, 29.367,62 milioi euroko soberakina geratzen da.

P-PFEZ taldearen kasuan, kostua 217.237,01 milioi eurokoa da. Gaur egun bezala, etorkizunean ere PFEZarekin hainbat arlo finantzatuko direnez, kopuru hori ere kontuan hartu behar da eta guztira 285.044,53 milioi euro lortu beharko dira. Kopuru hori finantzatzeko, alde batetik, PFEZren erreforma fiskala egingo da, eta bestetik, kanpo finantzaketa erabiliko da.

Erreforma fiskalaren ezaugarriak hauek dira: "aurrezpenaren zerga oinarria zerga oinarri orokorrean barneratzea, etekinen konpentsazioen ezabapena, minimo pertsonalen eta familia egoerarengatikoen ezabapena, zerga oinarriaren murriztapenen eta kuotaren kenkarien ezabapena eta zerga-tasa bera errenta guztientzat, oinarrizko errenta salbu ez dagoelako zergapetuta" (Arcarons, Raventós & Torrens, 2016). Erreforma egin ondoren ezarriko den zerga-tasa %49koa izango da.

Kanpo finantzaketari dagokionez, guztira 51.023,71 eurokoa da eta bi iturri ditu:


- ❖ P-Ez PFEZ taldea finantzatzeko ezabatutako prestazioen aurrezkiak erabiltzen da eta 29.367,62 milioi euroko soberakina geratzen denez, soberakin hau P-PFEZ finantzatzeko erabiliko da.
- ❖ Erreforma fiskalarekin minimo pertsonal guztiak ezabatuko direnez, 10.000 euro baino gutxiago irabazten dutenek ere errenta aitortpena egin beharko dute. 2010ean, 474.709 milioi euroko errendimenduak izan ziren eta 430.530,9 milioi euro jaso ziren PFEZren bidez. Gainerako 44.178,10 milioi euroak 10.000 euro baino gutxiago irabazten dutenei dagozkie, eta hauek ere errenta aitortpena egingo dutenez, 21.656,09 milioi euro gehiago lortuko dira.

Proposamen honen egileen arabera, oinarrizko errenta ezarriko balitz eta aurretik azaldu bezala finantzatuko balitz, hiritarren %80,93a izango da garaile gaur egungo egoerarekin alderatuta. Bi taldeak aztertuz gero, P-PFEZ taldeko %75,67ak eta P-Ez PFEZ taldeko guztiek

irabaziko dute. Finantzaketa proposamen onuradun nagusiak errenta txikiena duten hiritarrak dira, ezer ez jasotzetik oinarritzko errenta jasotzera igaroko direlako. Ondorioz, egileek diote errentaren banaketa egokiagoa lortuko dela.

Horrez gain, zerga-tasa bakar bat izateak ez du esan nahi zerga hori progresiboa izango ez denik. 1. grafikoan ikusten da zerga-tasak balio ezberdinak hartuko dituela errenta-maila bakoitzean. Izan ere, oinarritzko errentak pertsona baten errentan duen pisuaren arabera, zerga-tasa efektiboaren eta zerga-tasa nominalaren arteko aldea handiagoa edo txikiagoa izango da.

1. GRAFIKOA: Zerga-tasaren alderaketa oinarritzko errentarekin eta oinarritzko errenta gabe



Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2016

Errenta baxuak dituztenen kasuan, oinarritzko errentak errentaren gehiengoa hartuko du, zerga-tasa efektiboa nominala baino txikiagoa izango da eta ordaindu behar duten zerga oinarritzko errentarekin jasoko dutena baino txikiagoa izango da. Aldiz, errenta altuak dituztenentzat oinarritzko errentak euren errentaren zati oso txikia hartuko du, bi zerga-tasak nahiko antzekoak izango dira eta oinarritzko errentaren zenbatekoa baino zerga gehiago ordaindu beharko dituzte.

Azkenik, proposamen honen egileek diote Espainian oinarritzko errenta finantzatu ahalko dela. Izan ere, euren proposamenaren arabera ez da diru-poltsa berri bat sortu beharko diru-sarrera hauek ordaintzeko, guztia PFEZren eta ezabatutako prestazioen bitartez finantzatuko baita.

2.6.2. GIPUZKOAKO PROPOSAMENA

Gipuzkoan oinarritzko errenta nola finantzatu daitekeen proposatu zuten Arcarons, Raventós eta Torrens-ek 2014ean. Espainiako proposamenaren ezaugarri berdinak ditu: oinarritzko errenta ez da barneratzen PFEZ kalkuluan, oinarritzko errenta zenbateko berekoak edo txikiagoak diren diru-laguntzen ordezkia da eta gaur egun PFEZ bidez finantzatzen diren arloak

finantzaten jarraitu beharko du. Ondorengo lerroetan, proposamen hori azalduko da, kontuan hartuta kalkuluak egiteko oinarri-urtea 2011 dela (Arcarons, Raventós eta Torrens, 2016).

Oinarrizko errentaren zenbatekoari dagokionez, Espainiako proposamenean bezala, adin txikikoen helduen zenbatekoaren %20a jasoko dute. Gipuzkoako kasuan, zenbateko hori zehazteko 2011ko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kopurua erabili dute. Horrela, helduek urtean 7.902 euro jasoko dituzte eta adin txikikoek 1.580,4 euro.

Gipuzkoako proposamenean, Espainiakoan bezala (23. orria), errenta aitortzaileen menpeko pertsonak ere PFEZ aitortzen dutenen taldean barneratzen dira. Beraz, talde hau 681.888 hiritarrek osatzen dute, gipuzkoarren %96ak baino gehiagok. Gainerako %3,91a PFEZ aitortzen ez dutenek osatzen dute.

PFEZ aitortzen ez dutenen finantzaketa Espainiako proposamenaren berdina da. Oinarrizko errenta ezarrita desagertuko diren diru-laguntzetatik 1.731 milioi euroko aurrezkoa lortuko da. Talde honen kostua, berriz, 213 milioi eurokoa da. Aurrezkoa kostua baino askoz ere handiagoa denez, aurrezkoa erabiliko da talde honen oinarrizko errenta finantzatzeko eta 1.518 milioi euro sobratuko dira.

PFEZ aitortzen dutenen kasuan, oinarrizko errenta finantzatzeko erreforma fiskala egitea proposatzen dute eta erreforma honen ezaugarriak Espainiako proposamenekoaren berdinak dira (23. orria). Gipuzkoako zerga-tasa %40,52koa izango da, eta horren bidez, oinarrizko errenta finantzatu eta lehendik PFEZren bidez finantzatzen ziren arloak finantzatzen jarraitu ahalko da. Horrez gain, PFEZ aitortzen ez dutenen kasuan sobratutako kopurua ere PFEZ aitortzaileen oinarrizko errenta finantzatzeko erabiliko da.

Proposamen honen egileen arabera, erreforma honek errenten desberdintasunean eragin zuzena izango du. Izan ere, inolako aldaketarik egingo ez balitz Gini Koefizientea 0,3612 izango litzateke, eta erreformak eginda errentetan emango diren aldaketen ondorioz, Gini Koefizientea 0,2623 izango litzateke. Beraz, desberdintasun txikiagoa egongo litzateke Gipuzkoako hiritarren errenten artean.

Oinarrizko errentarekin irabaziko dutenak aitortzaileen %74,7 izango dira. Zazpigarren dezilean dago muga: hortik behera aitortzaile guztiek edo gehienek irabazi egiten dute eta hortik gora aitortzaile gehienek galdu egiten dute.

2.6.3. IRLANDAKO PROPOSAMENA

2016an, Murphy eta Ward-ek Social Justice Ireland-ek Irlandan oinarrizko errenta finantzatzeko egindako proposamena aurkeztu zuten. Proposamen honetan, oinarrizko errenta jasotzeko irlandar egoiliarra izan behar da (atzerritarren kasuan, urte luzez bertan bizi direnek bakarrik jasoko dute) eta adinaren arabera aldatu egiten da zenbatekoa. Horrez gain, oinarrizko errenta zerga kalkulatik salbuetsita dago eta gainerako diru-sarrera guztiei %40ko zerga-tasa aplikatuko zaie. Gainera, langileen aseguru sozialaren tasa (PRSI tasa deiturikoa) %10,75ean kokatzen da gaur egun eta erreformarekin %13,5ean ezarriko dute. Ondoren, finantzaketa proposamena azalduko da (Murphy & Ward, 2016).

Oinarrizko errenta ezartzearen ondorioz hiritarrek jasotzen dituzten diru-laguntza gehienak desagertu egingo dira. Hala ere, horietako zenbait ordaintzen jarraituko du Gobernuak, gizarteko talde ahulenei laguntzen jarraitzeko. Diru-laguntza horiek guztira 3.843 milioi euroko kostua sortuko dute.

Oinarrizko errentaren kostua 31.298 milioi eurokoa da, baina mantenduko diren diru-laguntzak gehituz gero, 35.141 milioi euroko kostua izango du. Beste departamentu batzuetan aurrezkoa lortuko dela kontuan hartuta, oinarrizko errentaren kostu garbia 34.412 milioi eurokoa da.

Gaur egun, PFEZtik eta gainerako zergetatik lortutakoarekin gizarte babeserako sailaren gastua finantzatu eta 6.870 milioi euro sobratzen dira. Oinarrizko errenta ezartzean, 6.870 milioi euroak ere finantzatu behar dira. Beraz, guztira 41.281 milioi euroko beharra sortzen da. Kopuru hori langileek aseguru sozialera egindako ekarpenaren eta %40ko PFEZren bidez finantzatuko da.

2.7. KASU ERREALAK

2.7.1. ALASKA

Oinarrizko errentaren inguruan geroz eta interes handiagoa badago ere, oraingoz munduko lurralde batean bakarrik ezarri dute, Alaskan hain zuzen ere.

1970. hamarkadan, irabazi handiak lortzen zituzten petrolioaren ustiapenetik, Alaskan kokatzen baita Ipar Amerikako petrolio meategi handiena. Irabazi horiek momentu horretako biztanleriarentzat bakarrik ziren eta agian etorkizuneko hiritarrek ezingo zituzten baliatu, petrolio ez baita ondasun berriztagarria. Horregatik, etorkizuneko hiritarrek irabaziak jasotzen jarraitzeko helburuarekin, petrolioaren ustiapenetik lortzen zen sarreren zati bat diru-poltsa batera bideratzea erabaki zuten. 1976an sortu zuten diru-poltsa hori eta Alaska Permanent Fund deitu zioten (Birnbaum & Widerquist, d. e.).

Estatuak petrolio ustiapenagatik jasotzen duen kopuruaren %25a poltsara bideratzen dela adierazi arren, errealitatean diru-poltsara bideratzen dena %10 inguru izaten da. Ondoren, poltsako dirua epe luzera inbertitzen da. Gainera, ustiapenetik lortzen diren diru-sarrerei esker, askoz ere zerga gutxiago daude eta hiritarrei laguntzeko programa gehiago jarri dira martxan.

Gobernatzaillearen proposamenaren arabera, hiritar guztiek urtero dibidendu bat jasoko zuten, baina denek ez zuten zenbateko bera jasoko. Hiritar bakoitzak Alaskan bizitzen zeramatzan urte kopurua kontuan hartuko zuten zenbateko hori zehazteko. Horrela, urte bakoitzeko akzio bat jasoko zuten eta akzio bakoitzeko 50 dolar ordainduko zitzaizkien. Akzio kopuru handiena 25 akziokoa izango zen, eta urte bat pasatzen zenean, hiritar bakoitzari akzio bat emango zitzaion (Goldsmith, 2010).

Asko izan ziren, ordea, proposamen honen kontra agertu zirenak. Imigranteak diskriminatzen zituela adierazten zuten, dibidendua lurralde horretan bizitako urte kopuruaren arabera izango zelako (Birnbaum & Widerquist, d. e.).


Horren ondorioz, proposamenean aldaketa bat egin eta adin guztietako hiritar guztiek zenbateko bera jasoko zutelara adierazi zuten. Hori bai, dibidendua jasotzeko beharrezkoa da gutxienez urte betez Alaskan bizitzea. Horrela, proposamena 1982an sartu zen indarrean (Goldsmith, 2010).

Urte bakoitzeko dibidenduaren zenbatekoa desberdina da, azken bost urteetan poltsak izandako errendimendua kontuan hartzen dutelako. Zenbatekoa honela kalkulatu dute: "poltsak sortu dituen sarrera garbiak eta azken lau urte fiskaletakoak gehitu, bider %21, zati bi,

aurreko urteko obligazio, gastu eta poltsaren programaren eragiketak bereizi eta eskatzaileen kopuruarekin zatitu” (Alaska Permanent Fund Corporation, d. e.).

Ekainaren 30ean jakinarazten dute urte horretako dibidendua zenbatekoa izango den eta urrian hasten dira hiritarrak zenbateko horiek jasotzen. Adin txikikoak ere kontuan hartzen dira urte bakoitzeko dibidendua kalkulatzeko, baina ez dituzte jasotzen adin nagusiko bihurtzen diren arte. Bitartean Estatuak da adin txikiko bakoitzari dagozkion dibidenduak gordetzeaz arduratzen dena, eta behin adin nagusiko bihurtzean, ordura arteko dibidendu guztiak emango dizkie (Goldsmith, 2010).

2. GRAFIKOA: Dibidenduaren zenbatekoaren bilakaera, 1982-2015



Iturria: Alaska Permanent Fund Corporation

2. grafikoan ikus daitekeen bezala, dibidenduaren balioa asko alda daiteke urte batetik bestera, epe luzera inbertituta baitago. Lehen urtean 1.000 dolarrekoa zen dibidendua, baina hurrengo urteetan txikiagoa izan zen. Zehazki 1984an izan zen txikiena, 331 dolar. Hortik aurrera, gora beherak izan baditu ere, balioa igo egin da. 2008koa izan da orain arteko altuena, petrolioaren prezio altuagatik grafikoan ikusten den zenbatekoari 1.200 dolarreko gehigarria gehitu baitzitzaion (Goldsmith, 2010).

Poltsaren zenbatekoari dagokionez, 2017ko maiatzaren 16an, poltsaren merkatu balioa 59.237.800.000 dolarrekoa zen (Alaska Permanent Fund Corporation, d. e.).

Programa honen ezarpenak zenbait onura ekarri ditu. Alde batetik, errenten artean zegoen desberdintasuna murriztu egin da. Izan ere, zergak ordaindu eta dibidendua jaso ondorengo diru-sarrerak aztertuta, pobreen diru-sarrerak proportzioz aberatsenak baino gehiago handituko dira. Beraz, hiritar pobreenen diru-sarrerak aberatsenak baino azkarrago haztea izan da errenten desberdintasuna hain handia ez izateko arrazoi nagusia. Bestetik, programa martxan jarri eta urte gutxitan, zehazki 1980 eta 1990 artean, amerikar natiboen pobrezia-tasa %6 murriztu zen.

Horrez gain, dibidenduak mesede egin die landa eremuan bizi diren hiritarrei. Izan ere, laborantzatik lortzen den errendimendua ez da berdina izaten urtero eta soldatapeko lana aurkitzea ere zaila da eremu hauetan.

Hala ere, programa honek ekar ditzake ondorio negatiboak ere. Inguruko estatuetakoa zenbait hiritar Alaskara bizitzera joan daitezke dibidendu programak erakarrita. Dibidenduaren zenbatekoa kalkulatzeko pertsona kopurua hartzen denez kontuan, biztanleria handitzearen

ondorioz zenbatekoa geroz eta txikiagoa izango da. Gainera, Alaskara geroz eta langile gehiago joaten badira, lan eskaria izugarri handituko da.

Petrolio ustiapena geroz eta txikiagoa izateak ere arazoak ekar ditzake. Izan ere, Alaskako programa gehienak ustiapen horretatik lortutako sarreraren bidez finantzatzen dira. Sarrera horiek ordezkatzeko moduetako bat dibidenduen poltsako dirua erabiltzea da, baina ez litzateke nahikoa izango (Goldsmith, 2010).

2.7.2. FINLANDIA

2017ko urtarrilaren 1ean, Finlandian, oinarrizko errentaren esperimendu bat jarri zen abian: zoriz aukeratutako 2.000 hiritarrek 560 euro jasoko dituzte hilero 2018 amaierara bitartean.

Esperimentuan zehar, bertan parte hartuko duten hiritarrak oinarrizko errenta jasoko ez dutenekin konparatuko dira. Aztertu nahi dutena da ea bi taldeen enplegu-tasen artean desberdintasunik sortzen ote den oinarrizko errentaren ondorioz.

Esperimentuan parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: 25 eta 58 urte artean izatea eta 2016ko azaroan diru-laguntza bat jasotzea Finlandiako aseguru sozialen erakundetik. Hilabete horretan aldi baterako kaleratzearen ondorioz laguntza jaso dutenak, ordea, ez dira esperimenduaren partaide izango. Baldintza guztiak betetzen dituzten hiritarretatik 2.000 aukeratuko dira.

Bi urte horietan zehar, parte hartzaile guztiek kopuru bera jasoko dute hilero. Lanean hasi eta soldata jaso arren, oinarrizko errentaren zenbatekoa ez da aldatuko. Zergak kalkulatzeko orduan oinarrizko errenta ez da kontuan hartuko, baina soldata zergen kalkuluan barneratuko da (The Social Insurance Institution of Finland, 2016).

2.8. OINARRIZKO ERRENTARI BURUZKO INKESTAK

Azken urteetan, hiru inkesta egin dira oinarrizko errentari buruzko iritzia ezagutu eta diru-laguntza honekin hiritarrek hartuko lituzketen erabakiak ezagutzeko. Inkesta horiek Europar Batasunean, Katalunian eta Euskal Herriko Unibertsitatean egin dira.

2016an, europarrek gai ezberdinen inguruan zuten iritzia ezagutzeko inkesta bat egin zuten. Guztira 28 herrialdeetako 10.000 pertsonari egin zizkieten galderak eta inkesta horretan egindako galdera batzuk oinarrizko errentari buruzkoak izan ziren.

Inkesta honen bidez europarren gehiengoak oinarrizko errentaren kontzeptua entzuna duela ondorioztatzen da. Hiritarren ia %25ek bakarrik daki zehatz-mehatz kontzeptu hau zertaz doan, baina ia %60k kontzeptua ezaguna egiten zaiela adierazi zuten. Proposamen hau bozkatu beharko balitz, gehiengoak bere alde egingo zuela adierazi zuen. Hala ere, ia hiritarren laurdenak proposamen honen aurka bozkatu zuela adierazi zuen. Datuak herrialdeka aztertzen badira, oinarrizko errentaren aldeko gehien Espainian, Italian eta Alemanian daude.

Oinarrizko errentaren ideia babesteko zituzten arrazoiei buruz ere galdetu zitzairen. Oinarrizko errenta dirurik ez izateak sortzen dituen arazoei aurre egiteko tresna egokia zela adierazi zuten eta diru-sarrera horrekin hiritar guztiek aukera berdina izatea espero zutela.

Proposamen honek sortzen dizkien kezkei buruz galdetuta, lan egiten dutenen kopurua jaitsi eta oinarrizko errentak erakarrita datozen atzeritarren kopurua handitu egingo dela adierazi zuten. Horrez gain, proposamen honen aurka egiteko arrazoi gehiago ere badaude:

finantzatzeke dauden zailtasunak eta egokiagoa dela laguntza hau beharra dutenek bakarrik jasotzea.

Diru-sarrera hau jasota lan munduan aldaketak gertatuko direla esaten bada ere, oso gutxi izan ziren lan egiteari utzi, lan berri bat bilatu edo lan gutxiago egingo zutela esan zutenak. Gainera, askoren ustez oinarrizko errentak ez du inolako eraginik izango lan egiteko izan ditzaketen aukeretan (Jaspers, 2016).

2015eko uztailean, Kataluniako 1.600 pertsonak hartu zuen parte oinarrizko errentaren inkestan. Hiritarren %72a proposamen honen alde agertu zen eta %20a izan zen ideia hau gustuko ez zuela adierazi zuena. Oinarrizko errenta jasota euren lanpostua utziko zutela adierazi zutenen kopurua oso txikia izan zen, %3ra ez baitzen iristen. Horrez gain, orain baino ordu gutxiagoz lan egingo zutela adierazi zuten pertsonen kopurua %10 baino txikiagoa izan zen.

Euskal Herriko Unibertsitateak oinarrizko errentari buruzko inkesta bat egin zuen 2016ko irailean. Unibertsitateko 3.000 ikasle eta langile inguru izan ziren gai horren inguruko galderak erantzun zituztenak.

Emaitzen arabera, inkesta egindakoetatik erdia baino zertxobait gehiago ziren proposamen honen alde zeudenak eta aurka zeudenak, berriz, ia laurdena ziren. Horrez gain, oinarrizko errenta jasota lana utziko zuten edo ez galdetu zitzairen. %3,5ak lanean ez zutela jarraituko adierazi zuten eta %70ak baino gehiagok oraingo baldintza berdinetan jarraitzeko asmoa zutela. Gainera, galdera horri erantzun zieten pertsonen %20ak esan zuen oinarrizko errenta jasoko balu ordu gutxiagoz arituko lirakeela lanean.

Hiru inkestak alderatuta, datuak oso antzekoak direla ikusten da. Hiru kasuetan inkesta egindakoen gehiengoa da proposamen honen alde dagoena. Oinarrizko errenta jasota askok lan egiteari utziko diotela pentsatzen bada ere, inkestetan ikusi bezala, portzentaje hau oso txikia da. Azkenik, hiru inkestetan ikusten da lan egindako ordu kopurua murriztuko luketenak ere badaudela, euren gustuko ekintzetan ahalik eta denbora gehien igarotzeko (Bollain, 2016).

3. OINARRIZKO ERRENTA KRISI GARAIAN

3.1. AZKEN URTEETAKO FINANTZA KRISIA

2007az geroztik, finantza krisiaren ondorioak jasaten ari gara. Azken hamarkadetako krisirik okerrrena da, 1929ko krisiaz geroztik izan den larriena baita. Aurreko hamarkadako krisien aurreko urteekin alderatzen bada, ondorengo antzekotasunak daude, besteak beste: likidezia ugari zegoen, aktiboen prezioak gorantz zihoazen eta higiezin burbuila batean murgilduta geunden. Hala ere, 2007ko krisiak aurreko guztietatik bereizten duten ezaugarri bat du, mundu mailako izaera hartu duela alegia (European Commission, 2009).

3.1.1. SORRERA, KAUSAK ETA LEHEN ONDORIOAK

Krisiaren sorrera Estatu Batuetan kokatzen da. Aurreko urteetako gehiegizko likideziaz gain, arriskua gaizki baloratzea eta inbertitzaile askok informazio egokia ez ezagutzea ere krisiaren eragileak izan zirela esaten da (Hernández, Moraleda & Sánchez, 2011).

Krisia 2007an hasi bazen ere, 2003ko erabaki batek zeharkako eragina izan zuen. Urte horretan, Estatu Batuetako Erreserba Federaletako presidentek prezioen jaitsiera aurreikusten zuten. Prezioak ez jaisteko eta kontsumoa bultzatzeko, interes-tasak %1ean ezarri zituzten eta ekonomiako likidezia handitu egin zen. Bankuek ere likidezia handiagoa zuten eta geroz eta hipoteka gehiago eskaintzen hasi ziren, interes-tasa hain baxua izanda, irabaziak lortzeko bide bat zelako (Pardo, 2008).

Krisia hasi aurreko urteetan, bankuek hipotekak ematen zizkien gero itzuli ezingo zituzten bezeroei. Hipoteka hauei arriskuzko hipotekak (subprime hipotekak) deitzen zitzaizkien. Bankuek aukera zuten hipoteka hauek inbertsio fondoetara transferitzeko, horrela euren balantzeetatik hipotekak ezabatuz. Askotan, ordea, zorra eskuratzen duen inbertitzaileak ez du ezagutzen zenbaterainokoa den zor horren arriskua, askotan finantza eragiketarako oso azkar egiten baitira. Arriskuzko hipotekaren kasuan, arriskua oso handia zen (Hernández, Moraleda & Sánchez, 2011).

2004an, Erreserba Federaletan interes-tasak igotzea erabaki zuen. Igoera pixkanaka egin zen, baina 2006. urtearen amaierarako asko hazi zen (Pardo, 2008). Zehazki, %1etik %5,25era igo zen (Hernández, Moraleda & Sánchez, 2011).

Gainera, ordura arte etxebizitzaren prezioa igo bazen ere, 2005etik aurrera prezioak eta salerosketa kopurua murrizten hasi ziren. Hipotekak ordaintzen ez zituztenen kopurua ere handitzen ari zen eta bankuek geroz eta likidezia gutxiago zuten.

Krisia lehertu aurretik, arriskuzko hipotekari buruzko kezka areagotzen hasi ziren eta ordura arte hipotekak eskaintzen zituzten inbertsioegile askok hipotekak eskaintzeari utzi zitoten. Enpresa askotan arazo finantzarioak agertzen hasi ziren eta hipotekaren zorra ere geroz eta handiagoa zen.

Krisiaren hasiera 2007ko abuztuan kokatzen da. Interes-tasa geroz eta handiagoen ondorioz, hipoteka kuoten zenbatekoa handitu egin zen eta bezero askok ezin izan zuten euren hipoteka ordaindu. Beraz, hipotekaren zorra asko handitu zen, gutxi gorabehera 500.000 milioi dolarretan kokatuz 2007ko abuztuan. Gainera, arriskuzko hipoteka asko produktu finantzarioen abal modura erabili ziren eta produktu hauen balioa ere asko murriztu zen. Egoera horren aurrean, banku askok galera handiak izan zituzten eta horietako askok itxi beste erremediorik ez zuten izan.

Globalizazioaren ondorioz, herrialde batean agertzen diren arazoak mundu osora askoz ere azkarrago zabaltzen dira, eta horixe gertatu zen krisi honekin ere. Krisia mundu osoko bankuetara zabaldu zen. Bankuez gain, krisiak ere eragina izan zuen burtsan, mundu osoko burtsek jaitsierak izan baitzituzten. Beraz, hipoteken arazoa finantza merkaturaino iritsi zen (Hernández, Moraleda & Sánchez, 2011).

Espainiara ere iritsi zen krisia. Gainerako herrialdeetan bezala, Espainian ere eragina izan zuen Estatu Batuetan arriskuzko hipotekekin gertatu zenak, baina ez zen krisiaren kausa bakarra izan. Espainian aurreko hamarkadetako krisiaren ondorioak ez zeuden artean desagertuta, nahiz eta langabezia-tasa murriztu eta enplegua sortu ziren, krisia erabat gainditu gabe baitzegoen. Gainera, Espainiako ekonomia hazkundearen zati handi bat etxegintza sektorearen jardueraren ondoriozkoa zen (Sanzo, 2013).

Krisiari erantzuteko, Europako Banku Zentralak eta Estatu Batuetako Erreserba Federalak interes-tasak murriztu eta bankuen eskura diru gehiago jarri zuten. Bankuek, ordea, beste bankuei kredituak emateari utzi zioten, ez baitziren elkarrekin fidatzen.

Bankuek ez zuten likidezirik eta geroz eta mailegu gutxiago ematen zituzten. Horrek enpresak asko kaltetzea ekartzen du, mailegurik gabe ezin dutelako euren jarduerarekin jarraitu. Ondorioz, enpresa asko itxi egiten dira eta langile asko langabezia geratzeko arriskua dago. Egoera honen aurrean, Estatuak esku hartu behar izan zuten eta bankuak nazionalizatu eta erreskateak eman zizkieten (Hernández, Moraleda & Sánchez, 2011).

Emandako mailegu kopurua murrizteak produkzioa murrizteko beste arrazoi bat ere badago. Hiritarrek ezin zuten krediturik jaso eta diruaren zati handiena etorkizunerako gordetzea erabaki zuten. Ondorioz, geroz eta ondasun iraunkor gutxiago erosten ziren, ondasun hauek kreditu askoren bidez erosten baitira. Produktu mota hauen eskaria murriztuta, produkzioa ere murriztu egin zen. Gainera, krisiak nazioarteko merkataritzan ere eragina izan zuen, enpresen inbertsioa murriztu egin zelako eta ondasun iraunkorren eskaria geroz eta txikiagoa zelako (European Commission, 2009).

3.1.2. KRISIAREN ONDORIOAK EUOPAR BATASUNEAN

Europar Batasuneko herrialde bakoitzean krisiak zenbaterainoko eragina izan duen aztertzen bada, herrialde bakoitzean eragin ezberdina izan duela ikus daiteke. Izan ere, herrialde guztiak ez zeuden egoera berean krisia hasi zenean. European Commission-ek (2009) hiru egoera bereizten ditu:

- ❖ Espainia, Frantzia eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan, etxebizitzaren sektoreak geroz eta pisu handiagoa zuen ekonomian eta etxebizitzaren prezioa ere goraka zihoan. Honek badu alde txar bat: finantza merkatuko edozein arazok etxebizitzaren eskarian askoz ere eragin handiagoa izango du, sektore honek ekonomian pisu handia badu.
- ❖ Herrialde batzuetan, esaterako Alemania eta Austria, esportazio asko egin ziren krisiaren aurreko urteetan eta merkataritza-balantzan superabita lortu zuten. Aldiz, Europa erdialde eta ekialdeko herrialdeetan defizita izan zuten. Finantza merkatuetako krisiak bi kasuetan eragingo du.
- ❖ Finantza merkatuetako krisiak orduan eta eragin handiagoa izango du finantza sektoreak tamaina handia duen herrialdeetan. Adibidez, Erresuma Batuan, Irlandan eta Luxenburgon, tamaina handia du sektore honek.

Europar Batasuneko herrialdeetatik hegoaldekoak izan dira krisiak gogorren astindu dituenak, horien artean Espainia. Krisiari aurre egiteko helburuarekin, Europar Batasunak austeritate politikak ezartzeko agindu zuen, hau da, zergak handitu eta gastu publikoa murriztu behar zela. Gainera, Greziak, Portugalek, Txiprek, Irlandak eta Espainiak erreskatea jaso behar izan zuten (Sanzo, 2013).

1. BPG-ren hazkundera

Europar Batasunaren aurreikuspenen arabera, krisia hasi ondorengo bi urteetan, Euroguneko hazkundera %1 baino txikiagoa izango zen eta 2011tik aurrera %1,5 ingurukoa (European Commission, 2009).

Europar Batasuneko BPG-ren bilakaera aztertzen bada, 2009ko aurreikuspenak ez ziren bete, BPGa %4,4 murriztu baitzen. Hurrengo bi urteetan, hazkundera izan zen berriz ere, zehazki %2,1 eta %1,7 igo baitzen. 2012an, ordea, %0,5 murriztu zen eta 2013an %0,2ko hazkundera besterik ez zuen izan. Hortik aurrera, ordea, egoera hobetuz doa eta 2014-2016 artean %1,6 eta %2,2 arteko hazkundeak izan dira.

Hazkundeak bilakaera berdina izan du Europar Batasuneko herrialde gehienetan. 2008an jaisten hasi zen eta 2009a izan zen urterik okerrera, ia herrialde guztietan (Polonia eta Albania izan ezik) hazkundera negatiboa izan baitzen. 2010 eta 2011an, egoera pixkanaka hobetzen hasi zen. Herrialde gehienek hazkunde positiboa izan zuten, baina Espainian eta Portugalen negatiboa izan zen 2011an eta Grezia eta Kroazian bi urteetan. 2012an, ordea, beherakada txiki bat izan zen eta berriz ere hazkunde negatiboak izan zituzten herrialde gehienek, nahiz eta datuak ez ziren 2009an bezain txarrak izan. Hortik aurrera, geroz eta hazkunde negatibo gutxiago izan dira eta 2016an positiboa izan zen herrialde guztietan, ekonomia errekeratzen ari den seinale (Eurostat, d. e.).

2. Langabezia-tasa

Langabezia-tasa hazi egin da krisia hasi zenetik: 2008an %7,1ean kokatzen zen eta 2016an %8,6an. Hala ere, 2016ko datua maila altuena baino bi puntu beherago kokatzen da, 2013an %10,9raino iritsi baitzen. Kasu honetan ere, datuak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Badira langabezia-tasa Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik izan duten herrialdeak eta beste batzuk horren goitik kokatu dira. Espainia eta Greziaren kasua da nabarmentzekoa, bi kasuetan langabezia-tasa %20 baino altuagoa izatera iritsi baita. Horrez gain, emakume eta gizonen datuak nahiko antzekoak dira, baina nabarmentzekoa da krisiaren ondorioz 25 urte azpikoen langabezia-tasa asko hazi dela.

Estatu Batuetako eta Japoniako langabezia-tasek igoera izan zuten 2009. eta 2010. urteetan. Europar Batasuneko tasaren azpitik egon dira beti, eta 2016an %4,9 eta %3,1eko tasak zituzten, hurrenez hurren (Eurostat, d. e.).

Krisiak ez du eragin berdina izan sektore guztietan. 2008 eta 2012 bitartean, zerbitzu sozial eta informatika eta komunikazioa bezalako zerbitzu espezializatuetan 4,38 milioi pertsonatan handitu zen langile kopurua. Aldiz, 10,38 milioi langilek euren lanpostuak galdu zituzten etxegintza, manufaktura, banka eta aseguru eta garraio sektorean, besteak beste. Manufaktura sektorea izan zen kalterik handiena jasan zuena, 4,42 milioi langile gutxiago baitzeuden 2012an. Etxegintza sektorean, berriz, 3,20 milioi langile geratu ziren lanik gabe. Hala ere, erreskatea jaso zuten herrialde guztietan handiagoa izan zen etxegintza sektorean

galdutako langile kopurua eta Europar Batasunean sektore horretan galdutako lanpostuen %56,7 bost herrialde horietakoak izan ziren (Sanzo, 2013).

3. Pobrezia arriskua eta errenten desberdintasuna

2008an hiritarren %23,7a pobrezia arriskuan zegoen eta 2015ean portzentaje horrek balio berdina hartzen zuen. Adin-tarteak aztertzen badira, haur eta gazteak dira egoera okerrean daudenak. 2015an, 6 urtetik beherakoen %24,7a pobrezia arriskuan zegoen, 6-11 urte artekoetan arriskua %26,5ekoa zen eta 15-24 urte artekoetan %31koa. Adin horretatik gora egoera hobea zen: 25-49 urte artekoetan %23a zegoen arriskuan, 50-64 urte artekoetan %24,9a eta 65 urtetik gorakoetan %17,3a.

Lan egoeraren arabera asko aldatzen da talde bakoitzak pobrezia jasateko duen arriskua. 2015eko datuen arabera, langabezia dauden egoera da okerrera, eurretatik %66,8 pobrezia arriskuan baitago. Enplegatuen kasuan ehunekoa askoz ere txikiagoa da, %10,4koa baita. Azkenik, aktiboak ez diren hiritarretatik %43,7 daude arrisku egoeran.

Hezkuntza-mailak ere eragina du hiritarrek pobrezia jasateko duten arriskuan. Ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, pobrezia jasateko arriskua murriztu egiten da. Lehen hezkuntza egin ez duten edota lehen hezkuntza egin dutenen %34,7k pobrezia jasateko arriskua du. Bigarren hezkuntza egin dutenen kasuan hiritarren %22,1 eta hirugarren hezkuntza egin dutenetatik %11,7 daude arriskuan. 18 urtetik beherakoen kasuan, gurasoen hezkuntza-mailak ere eragina du eta helduetan ematen den joera berdina errepikatzen da. Krisiaz geroztik, ia talde guztietan hazi egin da hiritarrek pobrezia jasateko duten arriskua.

Gini Koefizienteari dagokionez, bere balioa igo egin da krisia hasi zenetik eta errenten arteko desberdintasuna pixka bat handiagoa dela esan behar da. 2007ean 0,306ko balioa hartzen zuen, 2008 eta 2013 bitartean gora behera txiki batzuk izan zituen eta 2014 eta 2015ean 0,31n kokatzen zen. Herrialdeak banaka aztertzen badira, krisia hasi zenetik herrialdearen arabera koefizientearen balioa hazi edo murriztu egin dela ikusiko da. 2015ean, Gini Koefizientearen balioak 0,23 eta 0,38 artean kokatzen ziren eta baliorik altuena zuten herrialdeak Europa ekialdeko eta hegoaldekoak ziren (Eurostat, d. e.).

3.1.3. KRISIAREN ONDORIOAK ESPAINIAN

1. BPGren hazkundera

Krisia hasi zenean, Espainiako BPGk hazkunde positiboa izan zuen, 2007an %3,8 eta 2008an %1,1 hazi baitzen. Hortik aurrera, ordea, hazkundera negatiboa izan zen. 2009ko hazkunde datua izan zen okerrera, urte horretan BPG %3,6 jaitsi baitzen. Hurrengo urtean hazkundera nulua izan zen eta 2011, 2012 eta 2013an, hazkundera -%1, -%2,9 eta -%1,7 izan zen hurrenez hurren. Hortik aurrera, BPG haziz joan da urtero: 2014an %1,4 eta hurrengo bi urteetan %3,2. 2007an BPG 1.080.807 milioi eurotako zen eta 2016an, berriz, 1.113.851 milioi eurotako (Eurostat, d. e.).

2. Familien batez besteko gastua eta hipoteka kopurua

Familien batez besteko gastua murriztu egin da 2008az geroztik. Urte horretan, familia bakoitzak batez beste 31.711,01 euro gastatu zituen. Hurrengo urteetan batez besteko hori murriztuz joan zen eta kopururik txikiena 2014koa da 27.037,74 euroekin. Azken datua 2015ekoa da eta urte horretan familia bakoitzak batez beste 27.419,52 euroko gastua egin zuen.

Krisiaren beste ondorioetako bat hipoteken kopuruaren murrizketa izan da. 2007an 1.780.627 hipoteka eman ziren eta 2016an kopuru hori 399.258an geratu zen. Hipoteka gutxien eman diren urtea 2014a izan da, 315.535 hipotekarekin (Instituto Nacional de Estadística [INE], d. e.).

3. Langabezia-tasa

Espainiako urteko langabezia-tasa asko hazi da krisia hasi zenetik. 2007an %8,23koa zen eta 2008an %11,25era igo zen. 2009an hazkunde handia izan zuen zifrak, %17,86raino iritsi baitzen eta hurrengo urtean %19,86raino igo zen. 2011 eta 2015 artean %20tik gora kokatu da, 2013an %26,09raino iritsiz. 2016an jaisten hasi zen eta %19,63an kokatu zen.

Gizon eta emakumeen langabezia-tasak konparatzen badira, bi tasek joera berdina izan dute: 2007tik 2013ra igo egin dira eta 2013tik aurrera jaisten ari dira. Hala era, emakumeen tasa beti gizonena baino altuagoa da. Krisia hasi zenean, gizonen tasa emakumeen baino gehiago igo zen, baina azken urteetan gizonena gehiago murriztu da. 2016ean, lanik gabe zegoen gizonen kopurua %18,12koa zen, baina emakumeen tasa oraindik %20aren gainetik kokatzen zen. Adinari dagokionez, 16 eta 29 urte arteko gazteek dute langabezia-tasarik altuena. 2016an, 16-19 urte artekoen tasa %60koa zen, 20-24 urte artekoena %41ekoa eta 25-29 urte artekoena %25ekoa.

Datu absolutuak aztertzen badira, 2008an 2.595,9 milioi pertsona zeuden lanik gabe. Hurrengo urteetan kopurua haziz joan da eta 2013an jo zuen goia 6.051,1 milioi pertsonarekin. 2016an, langabe kopurua 5 milioitik behera kokatu zen, zehazki 4.481,2 milioi pertsonatan (INE, d. e.).

Espainian krisiak Europar Batasunean baino eragin handiagoa izan zuen. 32. orrian aipatu bezala, Europar Batasunean manufaktura izan zen sektorerik kaltetuena, baina Espainian etxegintzak izan zen langile gehien galdu zituen sektorea. Horrez gain, krisiak gainerako sektoreetan ere eragin zuen. Espainian manufakturak galdutako langile kopurua proportzioz Europar Batasunekoa baino handiagoa izan zen eta ekonomiako gainerako arloetan ere langile kopurua murriztu egin zen (Sanzo, 2013).

Espainian bertan ere, ezberdintasun handia dago Autonomia Erkidego batetik bestera. Langabezia-tasarik altuena duten Erkidegoak hegoaldekoak, Ceuta, Melilla eta Kanariar uharteak dira, aldiz, iparraldeko Erkidegoek tasa baxuagoa dute.

Merkataritza sozietateei dagokionez, asko murriztu da krisiaz geroztik sortu diren sozietateen kopurua. 2007an 142.763 sozietate sortu ziren eta 2009an zifra hori ia erdira murriztu zen, 78.204 sozietate bakarrik sortu baitziren. Hortik aurrera, sortutako sozietate kopurua haziz joan da, nahiz eta krisi aurreko zifraraino ez iritsi, eta 2015ean 94.644 sozietate sortu ziren. Desegindako sozietateen kasuan, berriz, 2007tik aurrera hazten hasi zen zifra hori eta urterik okerrena 2013a izan zen 24.794 desegiterekkin. 2015ean, desegite kopurua 20.758koa izan zen.

Hartzekodunen konkurtsoan deklaraturako enpresen kopuruari dagokionez, krisia dela eta hazi egin da kopuru hori. 2007an 1.033 enpresa deklaratu zituzten egoera horretan eta 2009an 5.175 izan ziren. Urterik okerrenak, ordea, 2012 eta 2013 izan ziren, 8.095 eta 9.143 konkurtso deklaratu baitziren, hurrenez hurren. Sektorerik kaltetuena etxegintzarena izan da, guztira deklaraturako konkurtsoen %25 inguru sektore horri baitagozkio. Hasierako urteetan industria eta energiaren sektorea izan zen konkurtso gehien deklaraturako bigarren sektorea, baina 2013tik aurrera komertzioak aurre hartu dio (INE, d. e.).

4. Pobrezia arriskua eta errenten desberdintasuna

Hiritarrek pobrezia jasateko arriskua hazi egin da krisi garaian. 2008an %19,8koa zen arrisku hori, baina 2009tik aurrera %20tik gora kokatu zen. 2014ean, gehiago hazi eta %22 gainditzera iritsi zen. 2016ko datua da azken urteetako daturik altuena, pobrezia arriskua %22,3koa baita. Emakume eta gizonen datuak alderatzen badira, ez dute joera berdina izan azken urteetan. 2013. urtera arte, emakumeen arriskua gizonena baino handiagoa zen eta urte horretatik aurrera gizonen arriskuak emakumeena gainditu egin zuen.

Hezkuntza-mailak ere eragina du hiritarrek pobrezia jasateko duten arriskuan. 2013 urtera arte, lehen hezkuntza egindakoek zuten arriskurik handiena, eta hortik aurrera, bigarren hezkuntzako lehen fasea egindakoek dute arrisku gehien. 2016ko datuen arabera, lehen hezkuntza egindakoen %26, bigarren hezkuntzaren lehen fasea egindakoen %29,2, bigarren hezkuntzako bigarren fasea egindakoen %20,1 eta goi mailako hezkuntza egindakoen %10,3k du pobrezia jasateko arriskua.

2016an, Espainiako familien %15,3k zailtasun handiak zituzten hilabete amaierara heltzeko, %18,6k zailtasunak zituen eta familien %27k zailtasun txikiak zituen. Pobrezia atariari dagokionez, 2008an 8.379,4 eurotakoa zen. Hortik aurrera jaitsiz joan zen, 2014ean 7.961,3 eurotan kokatu arte. 2015 eta 2016an, berriz, igo egin da eta 8.010,9 eta 8.208,5 eurotakoa izan da, hurrenez hurren.

Urteko batez besteko errentari dagokionez, krisia hasi zenetik gora beherak izan baditu ere, nahiko antzeko mantendu da. 2007an pertsona bakoitzak batez beste 10.737 euroko errenta zuen eta 2016an 10.708 eurokoa.

Gini Koefizientearen kasuan, krisiaren ondorioz areagotu egin da errenten desberdintasuna. 2008an 0,324 eta 2009an 0,329 ziren koefizientearen balioak. Hortik aurrera, handitu eta 0,34a ere gainditu zuen. 2013tik 2014ra bitartean izan zen hazkunderik handieran, 0,337tik 0,347ra igaro zelako. 2016an, 0,345 balioa hartu zuen koefizienteak (INE, d. e.).

3.1.4. KRISIAREN ONDORIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Ondorengo bilakaera izan du BPGren hazkundera EAEn: 2011an %0,7 hazi zen eta 2012 eta 2013an murriztu egin zen, %1,9 eta %1,3, hurrenez hurren. Hurrengo bi urteetan hazkundera positiboa izan da, 2014ean %2 eta 2015ean %3 hazi baitzen (Eustat, d. e.).

Langabezia-tasari dagokionez, hazi egin da krisia hasi zenetik. 2008an %6,63an kokatzen zen, baina 2009an %11,34raino iritsi zen. 2010ean jaitsi egin zen, baina hortik aurrera haziz joan zen 2013ra bitartean, urte horretan %16,58ra iritsiz. Azken urteetan jaisten ari da eta 2016a %12,59ko langabezia-tasarekin amaitu zen (INE, d. e.).

Pobrezia errealaren kasuan, portzentaje hori ere hazi egin da. 2008an %4,2koa zen eta 2012an %5,3an kokatzen zen. Azken datua 2016koa da eta urte horretan pobrezia errealak %5,7koa zen (Eustat, d. e.).

3.2. KRISI GARAIAN OINARRIZKO ERRENTA EZARTZEKO ARRAZOTIAK

Aurreko puntuan ikusi bezala, azken urteetako krisia oso gogorra izaten ari da eta ondorio larriak ekarri ditu: pobrezia arriskuan dauden kopuru handiagoa, langabezia-tasa altuagoa, errenten desberdintasun handiagoa eta abar. Zenbait autorek pentsatzen dute oinarrizko errentak krisi garaian hainbat aspektu hobetzen lagundu dezakeela. Horrez gain, gaur egungo diru-laguntzek arazo asko dituztela ikusita, oinarrizko errenta ezartzea egokia dela uste duten autoreak ere badaude.

3.2.1. OINARRIZKO ERRENTAREN ABANTAILAK

Oinarrizko errentak hiritarrei hainbat abantaila ekarriko dizkiela azpimarratzen dute zenbait autorek. Krisi garaian, 2.4. puntuan aipatutako abantailaz gain, diru-sarrera honek abantaila gehiago eskaintzen ditu eta hiritarren egoera hain txarra ez izaten lagundu dezake.

Gaur egun, lan merkatuan bi egoera bereizten dira: kontratu iraunkorrak eta aldi baterako kontratuak dituztenak. Azken talde honetan aurkitzen diren gehienak gazteak dira eta askoz ere segurtasun ekonomiko txikiagoa izaten dute. Egoera honetan, kontratu bat amaitu eta beste lan bat aurkitu bitartean, askok ez dute diru-sarrerarik jasotzen (Rey, 2011).

Beraz, lanik gabe geratzen diren hiritarrak egoera larrian aurkitzen dira. Oinarrizko errentarekin, ordea, diru-sarrera minimo bat bermatua dute eta euren egoera hobetu egiten da. Hau horrela izanik, oinarrizko errenta beharrezkoa da langabeei laguntzeko, baina krisi garaian askoz ere beharrezkoagoa da (Raventós, 2009). Izan ere, 3.1.2., 3.1.3. eta 3.1.4. puntuetan ikusi bezala, langabezia-tasa asko hazi da eta euretako asko pobrezia arriskuan daude.

Krisiaren eraginez, gaur egun irabazi gehienak finantza merkatuetako eragiketen ondorioz lortzen dira, lehen produktioetik lortzen ziren bitartean. Horren ondorioz, lanpostu kopurua eta langileek duten negoziazio boterea murriztuz doaz (Rey, 2011).

Oinarrizko errentari esker, langileek kaleratzeen aurka eta lan baldintza hobetuen alde egiteko botere handiagoa izango dute (Raventós, 2009). Krisi garaian langile askoren lan baldintzak okertu direla ikusita, bere lanpostuan gustura ez dagoen langileak lana utziko duela pentsatzen da. Nahiz eta soldata jasotzeari utzi, langile horrek diru-sarrera minimo bat jasoko du oinarrizko errentari esker. Oinarrizko errentak, ordea, badu funtzio garrantzitsu bat krisi garaian: langileei euren lan baldintzak hobetzearen alde aritzeko segurtasun ekonomikoa ematen die (Raventós, Yanes, & Lo Vuolo, 2010).

Gainera, diru-sarrera hau kontuan hartuko litzateke greba egin edo ez erabakitzerako orduan. Gaur egun, greba egunengatik soldatak murriztu egiten dira, eta langile askok ezin dute egoera hau jasan, soldataz gain ez dutelako bestelako diru-sarrerarik jasotzen. Oinarrizko errentarekin, ordea, egoera aldatu egiten da. Greba egin eta soldata murrizten bada ere, langileek diru-sarrera minimo bat bermatua izango dute eta ez dira sarrerarik gabe geratuko. Beraz, greba egiteko segurtasun handiagoa eta enpresariengan aurrean negoziazio-botere handiagoa lortuko dituzte (Raventós, 2009).

Sindikatuaren ordezkariarik ez duten langileen kasuan ere, oinarrizko errentak segurtasuna ematen die euren eskaeren alde borrokatzeko eta langileak antolatzeko talde berrien sorrera ere ekar dezake (Raventós, Yanes, & Lo Vuolo, 2010).

Horrez gain, krisi garaian oinarrizko errentak aukera ematen die langabeei edota gainerako hiritarrei negozio berriak martxan jartzeko. Negozio berria ondo badoa diru-sarrerak lortuko dituzte, eta emaitzak txarrak badira, diru-sarrera minimo bat behintzat bermatuta izango dute eta negozio berriren batean inbertitzen hasteko aukera izango dute (Raventós, 2009). Gainera, askoz ere seguruagoa da negozio hauek finantzatzeko oinarrizko errenta erabiltzea besteren finantzaketa erabiltzea baino. Oinarrizko errenta ez da itzuli behar, baina kreditu bat itzuli egin behar da eta agian ezin izango zaio aurre egin sortu zen zorrari (Raventós, Yanes, & Lo Vuolo, 2010). Krisi garaian hiritarren egoerak okerrera egin duela ikusita, kreditu bat itzultzeko zailtasunak areagotu egiten dira.

Abantailekin jarraituz, krisiaren ondorioz, handitu egin da hiritar pobreen kopurua. Oinarrizko errenta tresna egokia da pobre kopurua murriztu edo egoera honi amaiera emateko. Izan ere, hiritar guztiei oinarrizko errenta ematean, pobreenek ere diru-sarrera minimo bat ziurtatuta izango lukete.

Kontuan hartu behar da, pobrezia ez dela bakarrik errenta oso txikiak eduki eta oinarrizko ondasunen beharra izatea, gainerakoen menpe egotea eta gizarte bazterkeria ere pobrezia-aren parte dira. Hala ere, oinarrizko errentak egoera honi amaiera ematen lagundu dezake, diru-sarrerak bermatzeaz gain, independentzia ekonomikoa lortu eta gizarteko partaide sentituko direlako (Raventós, 2009).

Horrez gain, oinarrizko errenta krisi garaian kontsumoa bultzatzeko oso tresna egokia da. Krisi aurreko urteetan familien kontsumoa handia izan bazen ere, krisi garaian jaitsi egin zen. Horren arrazoia da krisi aurretik askoz ere errazago ematen zirela kredituak eta familiek, soldataz gain, kreditu horiek erabiltzen zituztela erosketak egiteko. Krisia hasi zenean, ordea, kreditu kopurua asko murriztu zen, eta gaur egun familiek soldataren zati handiena zorrak ordaintzeko erabiltzen dute, kontsumora askoz ere diru gutxiago bideratuz. Oinarrizko errentari esker, familiek diru-sarrera gehigarri bat izango dute eskuragarri eta erosketa gehiago egiteko aukera izango dute. Horrela, hiritar guztiek bermatuta izango dituzte oinarrizko ondasunak eta gizarteko desberdintasunak areagotzea eragotziko du (Raventós, Yanes, eta Lo Vuolo, 2010).

Betidanik esan izan da soldatapeko lanekin ezinezkoa dela hiritar guztiei bizitza duina bermatzea. Horregatik, oinarrizko errenta pobrezia-ari aurre egiteko tresna bat da, hiritar guztiek euren oinarrizko beharrak ase ahalko dituztelako. Krisi garaian, oinarrizko errentaren beharra argiago ikusten da. Izan ere, soldatapeko lan bat izateak ez ditu diru-sarrerak bermatzen, baina oinarrizko errentarekin beti jasoko dira (Skidelsky, 2016).

Gainera, Raventós-ek (2017) dio oinarrizko errentak buruko gaixotasunak murriztea ekarriko duela. Krisi garaian langabe kopurua eta pobrezia areagotu egiten dira eta buruko osasunean kalteak sorrarazten ditu. Izan ere, lanik ez izateak eta zorrei aurre egin ezinakin areagotu egiten dituzte antsietate eta depresio kasuak. Orokorrean, egoerarik okerrean dauden hiritarrek buruko osasun txarragoa izateko joera izaten dute. Azken urteetan, buruko gaixotasunak dituztenen kopurua areagotu egin da, hiritarren arteko desberdintasuna krisia hasi zenean baino handiagoa baita.

Oinarrizko errentari esker segurtasun ekonomikoa lortzen da eta horrek lasaitasuna emango die lan bila ari direnei, lan baldintza txarrak dituztenei edo aldi baterako kontratua duten langileei. Lana galdu dutenek ere ez dute hainbesteko presiorik izango beste lan bat topatzeko.

Gainera, diru-sarrera oso txikiak dituztenek erabakiak askoz ere azkarrago hartzen dituzte. Askotan ez dira erabakirik egokienak izaten eta horrek osasuna ere kaltetu dezake. Oinarrizko errentarekin, lasaitasunez hartu ahal izango dituzte erabakiak (Raventós, 2017).

3.2.2. GAUR EGUNGO DIRU-LAGUNTZEN ARAZOAK

Gaur egungo diru-laguntzei esker familia pobre askok diru-sarrera handiagoak izaten dituzte. Hala ere, programa hauek ez dira nahikoa familia horiek pobre izateari uzteko. Gainera, nahiz eta programa horiek egon, posible da pobrezia egoeran dauden familien kopurua handitzea (Raventós, Yanes, & Lo Vuolo, 2010).

13. eta 14. orrialdeetan aipatu bezala, RMI laguntzek arazoak dituzte: aurrekontu mugatua, pobrezia eta langabeziaren tranparekin duten erlazioa, porrot sententzioa, administrazio kostu altuak eta kontrol sententzioa. Krisi garaian hiritar asko daude langabezian eta pobrezia arriskua ere geroz eta handiagoa da. Beraz, laguntza hauek jaso behar dituztenen kopurua handitu egingo da eta pertsona gehiagok jasan beharko dituzte laguntza hauen arazoak.

Laguntza programa hauetan parte hartzeko ezinbestekoa da baldintza batzuk betetzea. Administrazioak onuradunak aukeratu bitartean, baliteke laguntza eskatu dutenen egoera okerrera joatea. Behin onuradunak zein diren zehaztuta, onuradun horien egoera hobetu egingo da laguntzari esker, baina onuradunak ez direnen egoerak oso larria izaten jarraituko du (Raventós, Yanes, & Lo Vuolo, 2010).

Fuenmayor Fernández-ek (d. e.) laguntza hauen arazo gehiago aipatzen ditu. RMI laguntzek bete beharreko legedia oso zorrotza da eta askotan laguntzari buruzko informazio egokia ez dela ematen ere esaten da. Izan ere, eskatzaile askok ez dute jakiten zein pausu jarraitu behar dituzten eskatzeko edo emandako informazioa ez dute behar bezala ulertzen. Gainera, Ayala-k aipatzen dituen beste bi arazo ere zehazten ditu: hiritar askok ez dute laguntza hauen berri eta eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkezteko zailtasunak izaten dituzte.

Arazoekin jarraituz, diru-sarrerarik jasotzen ez dutenak gizartetik baztertuak sentitzen dira eta gainerakoek ez dituzte lehen bezainbeste hartzen kontuan. Gainera, zenbat eta denbora gehiago egon lanik gabe, geroz eta autoestima baxuagoa izaten dute. RMI laguntzak bazterkeria hau jasaten dutenei laguntzeko ezarri badira ere, ezin izan dute eragotzi onuradunak sozialki porrot egin balute bezala sentitzea. Izan ere, diru-laguntza hauek bizirauteko sarrera nahikoak ez dituztenek jasotzen dituzte eta sarrerarik ez izatea baztertzeko arrazoi nagusienetakoa da (Rey, 2011). Ondorioz, laguntza jaso dezaketen askok uko egiten diote laguntza hori jasotzeari (Fuenmayor Fernández, d. e.).

Gaur egungo programez baliatu ahal izateko, beharrezkoa da aurretik zenbait ordainketa egitea. Pertsona bakoitzak ekarpenen zenbatekoaren eta egin dituen epearen arabera kopuru bat jaso ahal izango du. Programa hauek lan merkatuan oinarritzen direla ikusten da eta egileek suposatuta zuten langileek etengabe lana izango zutela eta soldata egokia jasoko zutela (Noguera, 2002).

Krisi garaian asko dira lana galdu eta kotizatzen jarraitu ezin izan dutenak. Askok ezingo dute etorkizunean prestaziorik jaso, ez dutelako behar adina kotizatu. Horrekin lotuta, Noguera-k (2002), 1990. hamarkadaren amaierako datuak kontuan hartuz, adierazten du emakume eta gazte askok prestazioak jasotzeko arazoak izango dituztela. Beraz, geroz eta desberdintasun handiagoak sortzen dira gizartean, hiritar batzuk laguntza gehiago jasotzeko aukera izango dutelako beste batzuk jaso ezin dituzten bitartean.

Beste arazoetako bat da laguntza programa asko zaharkituak geratu direla. Izan ere, familia eredu tradizionalan oinarritzen dira eta ez dute kontuan hartzen geroz eta familia eredu gehiago daudela (Noguera, 2002).

Gainera, gaur egungo diru-laguntzak jasotzeko, kasu batzuetan derrigorrezkoa da lan programetan parte hartzea. Pertsona batzuek, ordea, ezin dute programa horietan parte hartu eta horien artean daude gaixotasun psikiatrikoak dituztenak. Pertsona hauek ezin dira behartu programa horietan parte hartzera eta euren esku utzi behar da erabaki hori. Oinarrizko errentarekin, laguntza jasoko dute eta borondatez erabakiko dute programa horietan parte hartu nahi duten edo ez.

Aurrekoarekin lotuta, gaur egungo laguntza sistemekin, gaixotasun psikiatrikoak dituztenentzat lana bizirauteko tresna bat da. Lanak, ordea, gizarteko partaide sentitzeko tresna bat izan beharko luke, baina hau ezin da bermatu gaur egungo laguntzekin. Kasu honetan ere, alternatiba bat bilatu behar da eta hori oinarrizko errenta izan daiteke, diru-laguntza honek aukera ematen dielako gaixoei eurei hobekien egokitzen zaien jarduera egiteko (Raventós, 2005).

Prestazioak jasotzeko langileek lan egin behar duten programen kasuan, langileek eurek aukeratu ez duten lanpostuan aritu behar izaten dute. Posible da, ordea, lanpostu hau ez izatea pertsona horren gustukoa eta horrek murriztu egiten du bakoitzak nahi duena egiteko izan beharko lukeen askatasuna. Gainera, programa hauen ikuspegia lan egitearena da eta ez dute kontuan hartzen lanik ez egitea ere onargarria dela. Laguntza hauen bidez hobetu egiten da pobreenen hasierako egoera, baina onuradun asko aldi baterako lanpostuetan hasten dira eta porrot sentazioa ez da erabat desagertzen (Ramos Martín, 2003).

3.2.2.1. ESPAINIAKO RMI LAGUNTZEN ARAZOAK

Urtetik urtera haziz doa RMI laguntzak jasotzen dituzten pertsonen kopurua, laguntza hau jasotako titularren eta menpeko pertsonen kopurua hazi egin baita. Laguntza hauetara bideratutako gastuaren kopurua ere hazten ari da (Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, 2015). Hazkuntza hori ez da Espainian bakarrik ematen, Europar Batasunean ere handitu egin baita gastu soziala krisia hasi zenetik. Hala ere, Espainiako hazkuntza handiagoa da eta krisiak gogorrago eragin duelako izan daiteke (Fuenmayor Fernández, d. e.).

Nahiz eta gastua geroz eta handiagoa izan, laguntza programen bidez pobrezia-tasa ez da hainbeste murrizten. 2010ean, Espainiako pobrezia arriskua %28,1ekoa zen, eta diru-laguntzak eman ondoren, %20,7ra murriztu zen. Jaitsiera %7koa da, baina jaitsiera txikia da Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin konparatuta. Beraz, Espainiako programen eraginkortasuna ez da hain handia (Fuenmayor Fernández, d. e.).

Horrela, sistema hauek ere arazoak dituztela ondoriozta daiteke. 2011. urtean, laguntzen hedadura eta intentsitatea murrizten hasi zen. Diru-sarrerarik jasotzen ez duten etxe guztietatik RMI laguntza jasotzen dutenen portzentajea aztertzen bada, krisia hasi eta lehen urteetan hazi egin zen, baina 2011n kopuru hori murriztu egin zen.

Ondorioz, laguntzak ez ziren beharra zuten etxe guztietara iritsi eta pobrezia atariaren azpitik dauden hiritar guztiek ez dituzte RMI laguntzak jasotzen. 2010ean, Espainian egoera horretan zeuden hiritarren %17ak bakarrik jaso zuen laguntza hori. Erkidegoetako portzentajea aztertzen bada, alde handiak daude batetik bestera: EAEn eta Nafarroan egoera horretan dauden ia guztiek jasotzen dute laguntza hori, baina beste batzuetan ez du %10a gaintzen.

2008 eta 2011 artean, oso gutxi hazi zen pobrezia egoera horretan zeudenetatik RMI jasotzen zutenen kopurua. Ondorioz, krisi garaian laguntza horien beharra handiagoa dela ikusita, hasierako urteetan behintzat ez zuten behar bezala erantzun.


Gainera, 2011tik aurrera, diru-laguntza hau jasotzeko geroz eta baldintza zorrotzagoak bete behar dira. Ondorioz, urtetik urtera laguntza jasotzen dutenen kopurua geroz eta gutxiago hazten da. Autonomia Erkidego bakoitzak bere programa propioa duenez, bakoitzak bere aldaketak egin ditu eta erkidego batetik bestera aldatu egiten dira diru-sarrerara hau eskatzeko bete behar diren baldintzak.

2009 eta 2011 artean, pertsona batek dituen errentaren frogaren inguruko baldintza zorrotzea erabaki zuten erkidegoen erdiak baino gehiagok. EAEn eta Nafarroan baldintza hori hobetzea erabaki zuten, baina esaterako, Kantabria, Gaztela eta Leon, Gaztela Mantxa eta Galizian zorrotzea erabaki zuten. Aldiz, iraupena aldatzea erabaki zuten ia erkidego guztietan diru-sarrerara honen iraupena luzatzea erabaki zuten (Fernández, 2013).

Aurrekoaz gain, erkidego bakoitzeko sistemak alderatzen badira, laguntzaren zenbatekoaren eta biztanleko gastuaren artean ere desberdintasunak daude.

RMI laguntzen zenbatekoa ez da berdina erkidego guztietan. 3. grafikoan ikus daitekeen bezala, 2015eko zenbateko txikienaren eta handienaren arteko aldea 300 euro baino handiagoa da. Zenbatekorik altuenak Nafarroa eta EAEkoak dira 648,60 eta 619,29 euroekin, hurrenez hurren. Aldiz, Ceuta eta Murtzian 300 eurokoa zen zenbateko hori urte berean, erkidego guztietako txikiena bihurtuz. Urte horretako batez bestekoa 435,80 eurokoa izan zen.

3. GRAFIKOA: Autonomia Erkidego bakoitzeko zenbatekoa, 2015



Iturria: Egileak egina Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad-eko (2015) datuetan oinarrituta

Autonomia Erkidego bakoitzean biztanleko egiten den gastuen arteko aldea ere oso handia da. RMI laguntzak pobrezia aurre egiteko ezartzen dira, eta biztanleko gastuaren arabera, pobrezia-tasa handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. 2011ko datuak kontuan hartzen badira, EAE, Nafarroa eta Asturias izan ziren biztanleko gasturik handiena egin zutenak eta erkidego horietan bakarrik lortu zen pobrezia-tasa %10aren azpitik kokatzea.

Hala ere, kontuan hartu behar da erkidegoetako errentak desberdinak direla eta laguntzaren zenbatekoa eta biztanleko gastua errentaren arabera izan daitezkeela. Erkidego bakoitzeko pertsonako batez besteko errenta eta RMIren zenbatekoaren arteko erlazioa aztertzen bada, erkidego batzuetan bi kontzeptuen arteko erlazioa dago, baina beste batzuetan ez (Fernández, 2013).

Askok argudio hori erabiltzen dute erkidegoen artean dauden desberdintasunak justifikatzeko. Horren aurrean, Fernández-ek (2013) dio orokorrean pertsonako batez besteko errenta ez dela RMI zehazteko ezaugarri erabakigarria. Gainera, desberdintasunak justifikatzeko argudio horren aurrean dio Estatuak ematen dituen laguntza askotan errentaren ezaugarria ez dela kontuan hartzen, guztiek kopuru bera jasotzen dutelako bizi diren erkidegoa ezberdina izanda ere.

3.2.3. OINARRIZKO ERRENTA SOLUZIORIK EGOKIENA

Krisi garaian aurreko urteetako laguntza programa berdina mantendu dira eta ez dute pobrezia eta desberdintasun egoerarekin amaitzea lortu (Raventós, 2017). Oinarrizko errentak dituen abantailak eta gaur egungo laguntzek dituzten arazoak kontuan hartuta, askok esaten dute laguntza horiek alde batera utzi eta oinarrizko errenta ezartzea izango litzatekeela soluziorik egokiena.

Raventós, Yanes, eta Lo Vuolo-ren (2010) iritziz, Europar Batasunean ezarritako austeritate politikek hiritarren bizi kalitatea kaltetu eta Ongizate Estatua arriskuan jarri dute. Egoera honen aurrean, eta krisi garaia dela kontuan hartuta, oso argi ikusten da gaur egungo diru-laguntzak aldatzeko beharra. Izan ere, arazo ugari dituzte eta ez dira gai pobrezia aurre egiteko. Gainera, laguntza asko jasotzeko ezinbestekoa da baldintza batzuk betetzea, eta egileen iritziz, hiritar guztiek eskubide berdina izan behar dituzte. Ondorioz, aukerarik egokiena oinarrizko errenta dela diote, diru-sarrerara honek gaur egungo laguntzen arazo eta muga guztiak gainditu egiten baititu.

Ongizate Estatuko programek etorkizunean izan ditzaketen arriskuaren aurrean, Ramos Martín-en (2003) ustez, beharrezkoa da programa berrietan pentsatzea. Oinarrizko errentak gaur egungo laguntzekin alderatuta abantailak eskaintzen dituela ikusita, diru-sarrerara hau ezartzea soluzio egokia izan daiteke.

Noguera-k (2002) ere oinarrizko errenta defendatzen du. Gaur egun prestazioak jasotzeko ezaugarriak kontuan hartzen badira, krisia dela eta, etorkizunean hiritar askok prestazioak jasotzeko zailtasunak izango dituzte. Arazo horri aurre egiteko oinarrizko errenta soluzio egokia dela dio, hiritar guztiek diru-sarrerak jaso ahalko dituztelako. Hala ere, oinarrizko errentaren helburua errentaren banaketa egokiagoa lortzea dela dio, eta helburu hori lortzeko gai ez bada, lehendik dauden laguntza sistemekin jarraitzea egokiagoa izango dela dio.

Azkenik, Espainiako laguntzen arazoak ikusita, Fernández-en (2013) ustez, beharrezkoa da oinarrizko errentaren ezarpena planteatzea. Izan ere, gaur egungo sistemek ezin izan diote erantzun krisiari eta erkidegoen arteko desberdintasunei amaiera eman beharra dago.

4. ONDORIOAK

Lan honen helburua da oinarrizko errentaren kontzeptua azaltzea, autore ezberdinek duten iritzia aipatzea eta krisi garaian diru-sarrera hau ezartzeko arrazoiak azaltzea. Proposamen honen ezagutza nahiko handia dela eta azken urteetan ekimen eta esperimenduak egin direla ikusita, oinarrizko errentaren aspekturik garrantzitsuenak aipatu nahi izan ditut. Ondorengo hauek dira lan honetatik atera ditudan ondorioak.

Lehenik, oinarrizko errentaren hiru definizio aipatu baditut ere, guztiak bat datoz oinarrizko errenta baldintzarik gabeko diru-sarrera unibertsala dela esaterakoan. Ideia hau orain dela urte batzuk sortu zela pentsa badaiteke ere, lanean zehar ikusi da orain dela mende batzuk bazirela proposamen honen inguruan ari ziren autoreak eta azken hamarkadetan esperimendu eta proposamen asko egin direla.

Ondoren, gaur egungo diru-laguntzekin alderatuta, ezaugarri desberdinak dituela eta horien arazoak gainditu egiten dituela ondorioztatu dut. Aipagarria iruditzen zait diru-sarrera honi esker administrazio kostuak murriztu eta kontrol sentsazioa desagertu egingo direla. Niretzat, ordea, garrantzitsuenak da diru-sarrera hau langabezia eta pobreziaren tranpari amaiera emateko tresna egokia izango dela. Langabeziaren tranparen kasua benetan larria da, diru-sarrera bat jasotzeko ezkutuko lana egiteak arrisku asko izan ditzakeelako.

Abantaileri dagokionez, autore guztiak bat datoz oinarrizko errentak hiritar guztiei askatasun handiagoa ekarriko diela esaterakoan. Lanean ari den pertsona batek bere lanpostuan jarraitu nahi duen, lana utzi nahi duen edo lanordu kopurua murriztu nahi duen erabakitze askatasuna izango du. Oso onuragarria iruditzen zait bere lanpostuarekin gustura ez dagoen langileak lana uzteko edo lanpostu batean ordu gutxiagoz aritzeko oinarrizko errentak ematen duen aukera hori. Egindako inkestetan ikusi da biztanleriaren zati batek bere lanordua murrizteko erabakia hartuko lukeela, benetan gustuko duten ekintza batean aritzeak gusturago sentiaraziko baititu.

Lan munduan jarraituz, lan bat aukeratzeko orduan hiritarrek dituzten arrazoiak desberdinak izango dira oinarrizko errentaren ondorioz. Pertsona guztiek diru kopuru bat bermatua izango dutela kontuan hartuta, pertsona batek gehien gustatzen zaion lana aukeratuko du. Oinarrizko errentari esker, etxeko eta borondatezko lanak egiten dituztenen kopurua handitu egin daiteke. Esan beharra dago bi lan hauek ere lan mota bat direla, nahiz eta beti pentsatu izan dugun lana soldatapeko lana bakarrik dela.

Oinarrizko errentak ematen duen segurtasun ekonomikoa ere oso aipagarria iruditzen zait. Diru-sarrera hau oso onuragarria da diru-sarrerarik ez duten edo oso sarrera urriak dituzten guztientzat. Segurtasun honen abantailak, ordea, hiritar guztiek jasoko dituzte. Ezin da ukatu oinarrizko errentak emakume askori mesede egingo diela, independentzia ekonomikoa jasoko baitute. Enpresari eta langileen arteko harremanak ere aldatu egingo dira eta hori oso onuragarria izango da langileentzat, askoz ere indar gehiago izango baitute baldintza txarreko lanen aurka egiteko.

Proposamen honen desabantailak ere aztertu ditut. Oinarrizko errentari egiten zaion kritika nagusienetakoa da, askok eta askok euren lanpostuak utziko dituztela, eta lan egiteari utzi dioten langile kopurua oso handia bada, ekonomian arazo handiak agertuko direla. Logikoa da bere lanpostuan gustura ez dagoen langile batek erabaki hori hartzea. Hala ere, oinarrizko errentari buruz egin diren inkestetan oso gutxi izan dira lan egiteari utziko diotela esan

dutenak. Emaitza horiek ikusita, ez dut uste ekonomiaren egoera autore batzuek esaten duten bezain larria izango denik.

Oinarrizko errenta unibertsala izatea kritikatzeko dutenak ere badira, beharrik ez dutenei diru-sarrera bat ematea dirua alferrik gastatzea dela baitiote. Kontuan hartu behar da gaur egungo laguntzak beharra dutenei zuzenduta daudela, baina onuradunak baztertuak sentitzen direla. Oinarrizko errenta arazo honi aurre egiteko soluzio egokia delakoan nago, denentzako diru-sarrera batekin bazterkeria arazoa desagertuko delako.

Aurrekoarekin lotuta, ez dago dudarik diru-sarrera honen inguruan dagoen zalantzetako bat finantzaketaren ingurukoa dela. Aztertu ditudan proposamen guztiak oso antzekoak dira eta egokiak direla esango nuke. Izan ere, guztietan hiritarren gehiengoak irabazi egiten du eta errenten desberdintasuna murriztea lortzen dute. Autore batzuek esaten dute proposamen garestia dela, baina finantzaketa ereduetan ikusten da ez duelako aparteko gasturik sortuko.

Oinarrizko errentari buruzko inkesten emaitzak aztertzean, harritu egin naiz Europar Batasunean gai honen ezagutza nahiko handia dela ikustean. Izan ere, nire ingurukoek ez dute gaiaren ezagutza handirik eta ez dira bere inguruko albiste asko entzuten.

Krisiari dagokionez, azken urteetako finantza krisia oso gogorra izan dela esan behar da eta bere ondorioak oso larriak izan direla. Ondorioen artean langabe kopurua eta pobrezia arriskuan dauden kopurua asko handitzea dira aipagarrienak.

Egoera honen aurrean, oinarrizko errentak eskaini ditzakeen abantailak aipatu ditut. Abantaila guztietatik garrantzitsuena da diru-sarrera honek langabeen egoera hain larria izatea eragotzi eta pobrezia egoera hobetzen lagunduko duela. Ikusi dugun bezala, krisiak jende askoren osasuna kaltetu du eta oinarrizko errenta hauen egoera hobetzeko tresna egokia dela esan behar da.

Gainera, gaur egungo diru-laguntzek arazoak dituzte eta ez dira gai izan krisiari aurre egiteko. Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak bete behar diren ondorioz, beharra duten guztiak laguntzak jaso ezin izatea arazorik larriena dela esango nuke, pertsona hauek egoera larrian bizitzen jarraitu beharko dutelako. Gainera, prestazio asko jasotzeko aurretik kotizatu behar diren egokitasuna zalantzan jarri daiteke krisi garaian, sistema honekin askok ezingo baitute etorkizunean prestaziorik jaso.

Aurreko guztia ikusita, oinarrizko errentaren proposamena egokia dela uste dut eta desabantaila baino abantaila gehiago dituela esango nuke. Krisi garaian ere ikusten da oinarrizko errentak familia askoren egoera hobetzen lagunduko lukeela. Hala ere, lanaren hasieran aipatu dut proposamen honen inguruko ziurgabetasuna oso handia dela eta ez dakigula benetan zer gertatuko den eta espero ez diren ondorioak lor daitezkeela. Orain arte, Alaskan bakarrik ezarri da oinarrizko errenta eta desberdintasunak murriztea lortu bada ere, ez dakigu hemen nolako eragina izango lukeen. Gainera, Alaskan petrolioaren bidez finantzatu da, baina gainerako herrialdeetan beste modu batera finantzatu behar da eta agian arazoak sortuko dira.

Ondorioz, oinarrizko errentaren ideia kontuan hartu eta froga eta esperimendu gehiago egingo nituzke. Talde txiki batekin hastea izango da egokiena, sistema desberdina delako eta ohitzea kostatu egin daitekeelako. Emaitzak aztertu eta egokiak badira, etorkizunean ezartzeko proposamen egokia izango litzatekeela uste dut.

Lanaren balorazio pertsonalari dagokionez, esan behar dut hasieran oinarrizko errentaren inguruan nuen ezagutza oso txikia zela eta lan honi esker ideia bera eta berari buruzko iritzi ezberdinak ezagutzeko aukera izan dudala. Gainera, ez nekien esperimenduak egin direla eta gai honen inguruko erreferenduma ere egin zela. Beraz, oso gustura aritu naiz lan hau egiten eta asko ikasi dut gai honen inguruan.

Azkenik, lan honetan Finlandiako esperimenduaren lehen ondorioak aipatzea gustatuko zitzaidakeen, baina esperimendua hasi berria da eta oso goiz da emaitza esanguratsuak lortzeko. Horregatik, hurrengo lan batean esperimendu horren emaitzak eta ekarri ditzakeen ondorioak aztertzea proposatzen dut.

5. BIBLIOGRAFIA

ARTIKULUAK

Anderson, E. (2000). Optional Freedoms. *Boston Review*. <http://bostonreview.net/forum/basic-income-all/elizabeth-anderson-optional-freedoms> helbidean eskuratua.

Arcarons, J., Raventós, D. & Torrens, L. (2014). Una propuesta de financiación de una renta básica en Gipuzkoa. *XIII Simposio Renta Básica*. Donostia, 2014ko otsaila. <http://www.nodo50.org/redrentabasica/textos/index.php?x=1107> helbidean eskuratua.

Arcarons, J., Raventós, D. & Torrens, L. (2016). La renta básica incondicional y cómo se puede financiar. Comentarios a los amigos y enemigos de la propuesta. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/la-renta-basica-incondicional-y-como-se-puede-financiar-comentarios-a-los-amigos-y-enemigos-de-la> helbidean eskuratua.

Birnbaum, S. & Widerquist, K. (d. e.). History of basic income. *Basic Income Earth Network*. <http://basicincome.org/basic-income/history/> helbidean eskuratua.

Bollain, J. (2016). Otra encuesta sobre la renta básica incondicional... y ya son tres. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/otra-encuesta-sobre-la-renta-basica-incondicional-y-ya-son-tres> helbidean eskuratua.

Casasas, D. & Raventós, D. (2003). La renta básica como caja de resistencia: Poder de negociación de los trabajadores y libertad como no-dominación. Giraldo Ramírez, J. (Ed.), *La renta básica, Más allá de la sociedad salarial*. 107-128. Medellín, Kolonbia: Escuela Nacional Sindical. <http://www.bin-italia.org/UP/pubbb/ENS%20RENTA%20BASICA.pdf> helbidean eskuratua.

Coelho, A. (2017). Basic income is superior to the job guarantee. *Basic Income Earth Network*. <http://basicincome.org/news/2017/02/basic-income-superior-job-guarantee/> helbidean eskuratua.

European Commission. (2009). Economic Crisis in Europe. Causes, Consequences and Responses. *European Economy*, 7. http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/pages/publication15887_en.pdf helbidean eskuratua.

Fernández, G. (2013). El aumento de la fragilidad de las Renta Mínimas de Inserción durante la crisis. *Documentación Social*, 166, 169-191. <http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/4643/07%20-%20EL%20AUMENTO%20DE%20LA%20FRAGILIDAD%20DE%20LAS%20RENTAS%20M%C3%8DNIMAS.pdf> helbidean eskuratua.

Flowers, A. (2016). What Would Happen If We Just Gave People Money? *FiveThirtyEight*. <http://fivethirtyeight.com/features/universal-basic-income/> helbidean eskuratua.

Fuenmayor Fernández, A. (d. e.). La política de lucha contra la pobreza y la exclusión social. Simulación y evaluación de las políticas estatales y autonómicas. *Ministerio de Empleo y Seguridad Social*.

<http://www.seg-social.es/prdi00/groups/public/documents/binario/174219.pdf> helbidean eskuratua.

Galston, W. (2000). What About Reciprocity? *Boston Review*. <http://bostonreview.net/forum/basic-income-all/william-galston-what-about-reciprocity> helbidean eskuratua.

Garzón, E. (2014). Siete argumentos contra la Renta Básica Universal y a favor del Trabajo Garantizado. *La Marea*. <http://www.lamarea.com/2014/08/13/siete-argumentos-en-contra-de-la-renta-basica-universal-y-favor-del-trabajo-garantizado/> helbidean eskuratua.

Garzón, E. (2015). Renta Básica, una medida económica con importantes inconvenientes. *Viento Sur*, 140, 66-72. http://eduardogarzon.net/wp-content/uploads/2013/05/VS140_E_Garzon_Renta_Basica_una_mediacion_economica_con_importantes_inconvenientes-2.pdf helbidean eskuratua.

Goldsmith, S. (2010). The Alaska Permanent Fund Dividend: A Case Study in Implementation of a Basic Income Guarantee. *13th Basic Income Earth Network Congress*. Sao Paulo, Brasil, 2010eko uztaila. http://www.iser.uaa.alaska.edu/Publications/bien_xiii_ak_pfd_lessons.pdf helbidean eskuratua.

Hernández, A., Moraleda, V. & Sánchez, M. T. (2011). Crisis económicas a lo largo de la historia. *Cuadernos de Formación*, 12/2011, 73-90. http://www.ief.es/documentos/recursos/publicaciones/revistas/cuadernos_formacion/12_2011/05_11.pdf helbidean eskuratua.

Jaspers, N. (2016). What do Europeans think about basic income? http://www.basicincome.org/wp-content/uploads/2016/05/EU_Basic-Income-Poll_Results.pdf helbidean eskuratua.

McFarland, K. (2016). The Greater Happiness for the More Workers: Basic Income vs Job Guarantee Pt 2. *Basic Income Earth Network*. <http://basicincome.org/news/2016/10/greater-happiness-workers-basic-income-vs-job-guarantee-pt-2/> helbidean eskuratua.

Meyer, H. (2016). Five Reasons Why A Basic Income Won't Solve Technological Unemployment. *Social Europe*. <https://www.socialeurope.eu/2016/02/why-a-basic-income-wont-solve-technological-unemployment-but-a-job-guarantee-might/> helbidean eskuratua.

Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. (2015). Informe de Rentas Mínimas de Inserción. <https://www.msssi.gob.es/ssi/familiasInfancia/ServiciosSociales/docs/InformeRMI2015.pdf> helbidean eskuratua.

Murphy, E. & Ward, S. (2016). Costing a Basic Income in Ireland. *Basic Income - Radical Utopia or Practical Solution*, 9, 125-136. <https://www.socialjustice.ie/sites/default/files/attach/policy-issue-article/4642/chapter9.pdf> helbidean eskuratua.

Noguera, J. A. (2002). Renta básica y crisis del estado de bienestar. *El Vuelo de Ícaro*, 2-3, 109-126. <http://www.ligaprodechoshumanos.org/icaro/noguera.pdf> helbidean eskuratua.

- Pardo, P. (2008). Borrachera de dinero. *El crash de 2008*. <http://www.elmundo.es/especiales/2008/10/economia/crisis2008/lascausas/index.html> helbidean eskuratua.
- Pateman, C. (2004). Democratizing Citizenship: Some Advantages of a Basic Income. *Politics & Society*, 32, 89-105. <http://www.sscnet.ucla.edu/polisci/faculty/pateman/Democratizing.pdf> helbidean eskuratua.
- Pinilla, R. (2002). La renta básica, de la economía de la escasez a la economía de la abundancia. *El Vuelo de Ícaro*, 2-3, 127-143. <http://www.ligaproderechoshumanos.org/icaro/pinilla.pdf> helbidean eskuratua.
- Ramos Martín, F. (2003). Empleo y renta básica: Chantaje de la supervivencia o autorrealización. Giraldo Ramírez, J. (Ed.), *La renta básica, Más allá de la sociedad salarial*. 41-106. Medellín, Kolonbia: Escuela Nacional Sindical. <http://www.bin-italia.org/UP/pubbb/ENS%20RENTA%20BASICA.pdf> helbidean eskuratua.
- Raventós, D. (2006). Prólogo a La Renta Básica de Yannick Vanderborght y Philippe Van Parijs. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/prlogo-a-la-renta-bsica-de-yannick-vanderborght-y-philippe-van-parijs> helbidean eskuratua.
- Raventós, D. (2008). 60 años de derechos humanos y uno de la declaración de Monterrey. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/60-aos-de-derechos-humanos-y-uno-de-la-declaracin-de-monterrey> helbidean eskuratua.
- Raventós, D. (2009). Las limitaciones de los subsidios condicionados y la renta básica en tiempos de depresión. *Documentación Social*, 154, 59-72. <http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/1046/05%20-%20LAS%20LIMITACIONES%20DE%20LOS%20SUBSIDIOS%20CONDICIONADOS%20Y%20LA%20RENTA%20B%20C%81SICA%20EN%20TIEMPOS%20DE%20DEPRESI%20C%93N.pdf> helbidean eskuratua.
- Raventós, D. (2011). La Renta Básica se aleja de los parlamentos y se acerca a los movimientos sociales. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/la-renta-bsica-se-aleja-de-los-parlamentos-y-se-acerca-a-los-movimientos-sociales> helbidean eskuratua.
- Raventós, D., Yanes, P. & Lo Vuolo, R. M. (2010). El Ingreso Ciudadano - Renta Básica ante la crisis económica y los ataques a los derechos sociales y laborales. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/el-ingreso-ciudadano-renta-bsica-ante-la-crisis-economica-y-los-ataques-a-los-derechos-sociales-y> helbidean eskuratua.
- Raventós, S. (2005). ¿Qué podría suponer una renta básica para las personas con enfermedad mental? *V Simposio de la Renta Básica*. Valentzia, 2005eko urria. http://www.nodo50.org/redrentabasica/descargas/sraventos_valencia.pdf helbidean eskuratua.
- Raventós, S. (2017). La renta básica universal como medida de prevención y protección de la salud mental. *Sin Permiso*. <http://www.sinpermiso.info/textos/la-renta-basica-universal-como-medida-de-prevencion-y-proteccion-de-la-salud-mental> helbidean eskuratua.
- Rey, J. L. (2011). La renta básica, la fuerza de trabajo y la crisis. *Revista Internacional de Pensamiento Político*, 6, 241-260. <http://pensamientopolitico.org/Descargas/RIPP06241260.PDF> helbidean eskuratua.

Sanzo, L. (2013). La crisis de principios del siglo XXI en España. *Documentacion social*, 166, 15-43.

<http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/4643/01%20-%20LA%20CRISIS%20DE%20PRINCIPIOS%20DEL%20SIGLO%20XXI%20EN%20ESPA%C3%91A.pdf> helbidean eskuratua.

Shafarman, S. (d. e.). A Brief History of Basic Income Ideas. *Unconditional Basic Income Europe*. <http://basicincome-europe.org/ubie/brief-history-basic-income-ideas/> helbidean eskuratua.

Shulevitz, J. (2016). It's Payback Time for Women. *The New York Times*. https://www.nytimes.com/2016/01/10/opinion/sunday/payback-time-for-women.html?_r=1 helbidean eskuratua.

Skidelsky, R. (2016). A basic income could be the best way to tackle inequality. *The Guardian*. <https://www.theguardian.com/business/2016/jun/23/universal-basic-income-could-be-the-best-way-to-tackle-inequality> helbidean eskuratua.

Van Parijs, P. (2000). A basic income for all. *Boston Review*. <http://bostonreview.net/archives/BR25.5/vanparijs.html> helbidean eskuratua.

Van Parijs, P. (2004). Basic Income: A simple and powerful idea for the twenty-first century. *Politics & Society*, 32, 7-38. [https://cdn.uclouvain.be/public/Exports%20reddot/etes/documents/Chap1.Simple and Powerful.pdf](https://cdn.uclouvain.be/public/Exports%20reddot/etes/documents/Chap1.Simple%20and%20Powerful.pdf) helbidean eskuratua.

WEB GUNEAK

Alaska Permanent Fund Corporation (APFC). (d. e.). <http://www.apfc.org/home/Content/dividend/dividendamounts.cfm>

Basic Income Earth Network (BIEN). (d. e.). <http://basicincome.org/>

European Citizens' Initiative for an Unconditional Basic Income. (d. e.). <http://basicincome2013.eu/>

Eurostat. (d. e.). <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database>

Eustat. (d. e.) http://eu.eustat.eus/idioma_e/indice.html#axzz4ikje2b3L

Iniciativa Legislativa Popular. (d. e.). <http://ilprentabasica.org/>

Instituto Nacional de Estadística (INE). (d. e.) <http://www.ine.es/>

Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua. (2014). <http://www.lanbide.euskadi.eus/dbe/-/informazioa/zer-da-rgi/>

Red Renta Básica. (d. e.). <http://www.redrentabasica.org/rb/>

The Social Insurance Institution of Finland (KELA). (2016). <http://www.kela.fi/web/en/basic-income-experiment-2017-2018>

Unconditional Basic Income Europe (UBIE). (d. e.). <http://basicincome-europe.org/ubie/>

ALBISTEAK

Baiges, S. (2016ko uztailaren 29a). Los 664 euros de la Renta Garantizada de Ciudadanía se mantienen como escollo para su aprobación. *El Diario*. http://www.eldiario.es/catalunyaplural/Renta_Garantizada_de_Ciudadania-Renta_Basica-Insercion-Pobreza-Parlament-ILP_0_540346273.html helbidean eskuratua.

Benítez, B. (2013ko martxoaren 12a). El Parlament estudia la ILP que pide una renta básica de 664 euros. *La Marea*. <http://www.lamarea.com/2013/03/12/el-parlament-de-cataluna-admite-a-tramite-la-ilp-de-la-renta-garantizada-de-ciudadania/> helbidean eskuratua.

Jourdan, S. (2014ko ekainaren 30a). UBI-Europe gains BIEN affiliation. *Unconditional Basic Income Europe*. <http://basicincome-europe.org/ubie/2014/06/ubie-affiliation-bien/> helbidean eskuratua.

La Marea. (2016ko ekainaren 6a). Suiza rechaza la renta básica en referéndum. <http://www.lamarea.com/2016/06/06/suiza-rechaza-la-renta-basica-referendum/> helbidean eskuratua.

Navas, J. A. (2014ko maiatzaren 26a). Las propuestas de Podemos: crear un salario máximo, renta básica universal y jubilación a los 60 años. *El Mundo*. <http://www.elmundo.es/espana/2014/05/26/53830a6c268e3e28488b456c.html> helbidean eskuratua.

6. ERANSKINAK

6.1. EUOPAR BATASUNeko EKIMENAREN EMAITZAK

1. TAULA: Sinaduren kopuru minimoak eta benetan lortuak herrialdeka

POSTUA	HERRIALDEA	KOPURU MINIMOA	LORTUAK	%
1	Bulgaria	13.500	32.006	237,08%
2	Eslovenia	6.000	9.255	154,25%
3	Kroazia	9.000	12.194	135,49%
4	Belgika	16.500	19.010	115,21%
5	Estonia	4.500	4.884	108,53%
6	Herbehereak	19.500	20.337	104,29%
7	Hungaria	16.500	14.514	87,96%
8	Frantzia	55.500	37.415	67,41%
9	Eslovakia	9.750	6.352	65,15%
10	Suitza	15.000	9.601	64,01%
11	Espania	40.500	25.420	62,77%
12	Austria	14.250	8.408	59,00%
13	Alemania	74.250	40.542	54,60%
14	Portugal	16.500	6.871	41,64%
15	Danimarka	9.750	3.200	32,82%
16	Txekiar Errepublikak	16.500	4.572	27,71%
17	Erresuma Batua	54.750	10.111	18,47%
18	Grezia	16.500	2.869	17,39%
19	Finlandia	9.750	1.622	16,64%
20	Errumania	24.750	4.082	16,49%
21	Luxenburgo	4.500	630	14,00%
22	Irlanda	9.000	1.170	13,00%
23	Polonia	38.250	4.765	12,46%
24	Italia	54.750	4.531	8,28%
25	Malta	4.500	194	4,31%
26	Txipre	4.500	112	2,49%
27	Lituania	9.000	221	2,46%
28	Letonia	6.750	154	2,28%
GUZTIRA	EUOPAR BATASUNA		285.042	

Iturria: European Citizens' Initiative for an Unconditional Basic Income, egileak moldatua eta itzulia

Herrialdeak behar ziren sinaduren eta benetan lortutakoen arteko portzentajearen arabera ordenatuta daude, handienetik txikienera.

6.2. OINARRIZKO ERRENTAK EKARRIKO LITUZKEEN DESOREKA EKONOMIKOAK AZALTZEKO ADIBIDEA

2. TAULA: 2015eko egoeraren eta oinarrizko errentarekin izango litzatekeen egoeraren arteko konparaketa eurotan

Ingreso bruto mensual	Ingreso neto mensual en 2015	Ingreso neto mensual con RB
0	0,0	625
100	100,0	675
200	200,0	725
300	300,0	775
400	400,0	825
500	500,0	875
600	600,0	925
700	700,0	975
800	800,0	1025
900	900,0	1075
1000	1000,0	1125
1100	1060,0	1175
1200	1119,6	1225
1300	1181,7	1275
1400	1258,3	1325
1500	1334,9	1375
1600	1411,5	1425
1700	1488,0	1475
1800	1564,6	1525
1900	1641,2	1575
2000	1716,4	1625
2100	1787,3	1675
2200	1858,3	1725
2300	1931,5	1775
2400	2000,4	1825
2500	2073,8	1875
2600	2142,1	1925
2700	2213,2	1975
2800	2284,2	2025
2900	2355,1	2075
3000	2426,1	2125
...
7500	5033,3	4375
...
20000	11658,0	10625
...

Iturria: Garzón (2015)

Oinarrizko errentarekin jasoko litzatekeen balioa kalkulatzeko, 2014ean Arcarons, Domènech, Raventós eta Torrens autoreek oinarrizko errentaren finantzaketari buruzko ereduiko datuetan oinarritzen da: PFEZa %50ekoa da eta oinarrizko errentaren zenbatekoa 625 euro.

6.3. ESPAINIAKO FINANTZAKETA PROPOSAMENA

3. TAULA: Oinarrizko errentaren kostua eta finantzaketa P-Ez PFEZ taldearentzat, milioi eurotan

	INE (pertsonak)	P-PFEZ (pertsonak)	P-Ez PFEZ (pertsonak)	ZENBATEKOA
18 urte baino gutxiagoko biztanleak	7.819.887	6.515.781	1.304.106	1.948,59 €
Biztanle helduak	35.926.543	27.774.210	8.152.333	60.906,08 €
GUZTIRA	43.746.430	34.289.991	9.456.439	62.854,67 €
Ezabatutako prestazioen aurrezkia				92.222,29 €
Oinarrizko errentaren kostua P-Ez PFEZ taldearentzat				- 62.854,67 €
SOBERAKINA				29.367,62 €

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2016, egileak itzulia

4. TAULA: Ezabatutako prestazioen aurrezkia, milioi eurotan

PRESTAZIO EDO LAGUNTZA MOTA	ZENBATEKOA
Familien subsidio eta laguntzak	3.661,68 €
Etxebizitzen subsidio eta laguntzak	2.164,76 €
Bazterketa sozialaren subsidioak	1.957,84 €
Pentsioak	54.023,56 €
Langabezia prestazioak	21.405,84 €
Bekak	1.917,07 €
Estatuko klase pasiboak	3.815,71 €
Helmugarik gabeko erreserbistak (FFAA eta FCSE)	258,95 €
Apaizak	126,50 €
Presoak	533,57 €
Administrazio gastuen %50a	2.356,81 €
GUZTIRA	92.222,29 €

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2016, egileak itzulia

5. TAULA: Oinarrizko errentaren kostua eta finantzaketa P-PFEZ taldearentzat, milioi eurotan

	P-PFEZ (pertsonak)	ZENBATEKOA
18 urte baino gutxiagoko biztanleak	6.515.781	9.735,88 €
Biztanle helduak	27.774.210	207.501,12 €
GUZTIRA	34.289.991	217.237,01 €
Gaur egun PFEZ-rekin lortzen dena		67.807,53 €
Oinarrizko errentaren kostua P-PFEZ taldearentzat		217.237,01 €
FINANTZAKETA HELBURUA		285.044,53 €

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2016, egileak itzulia

6. TAULA: Finantzaketa proposamenaren irabazle eta galtzaileak

Declara- ción de renta	Total personas	Total declaraciones	Porcentaje declaraciones ganadoras	Declarantes ganadores	Ganancia total (millones de €)	Ganancia per cápita (€)	Porcentaje declaraciones perdedoras	Declarantes perdedores	Pérdida total (millones de €)	Pérdida per cápita (€)
10%	3.428.999	2.192.882	100,00%	2.192.882	14.834,3	6.765	0,00%	0	0,0	0
20%	3.428.999	2.192.882	100,00%	2.192.882	11.367,2	5.184	0,00%	0	0,0	0
30%	3.428.999	2.192.882	100,00%	2.192.882	9.302,0	4.242	0,00%	0	0,0	0
40%	3.428.999	2.192.882	100,00%	2.192.882	6.935,0	3.163	0,00%	0	0,0	0
50%	3.428.999	2.192.882	91,82%	2.013.550	5.501,8	2.732	8,13%	178.377	67,1	376
60%	3.428.999	2.192.882	64,01%	1.403.736	4.526,5	3.225	35,93%	788.007	548,7	696
70%	3.428.999	2.192.882	34,74%	761.738	3.591,7	4.715	65,23%	1.430.501	1.798,2	1.257
80%	3.428.999	2.192.882	24,13%	529.063	1.994,2	3.769	75,87%	1.463.819	3.873,4	2.328
90%	3.428.999	2.192.882	4,82%	105.656	222,1	2.102	95,17%	2.086.881	7.393,3	3.543
95%	1.714.500	1.096.441	0,00%	0	0,0	0	100,00%	1.096.441	6.048,9	5.517
98%	1.028.700	657.865	0,00%	0	0,0	0	100,00%	657.865	5.514,2	8.384
100%	685.800	438.576	0,00%	0	0,0	0	100,00%	438.576	9.038,7	20.609
Total	34.289.991	21.928.822	61,95%	13.585.273	58.274,9	4.290	38,03%	8.340.467	34.282,6	4.110

	declaraciones	P-IRPF	P-IRPF P-No IRPF
Declaraciones ganadoras	21.928.822	34.289.991	43.746.430
P-IRPF Ganadores (adultos y menores)	13.585.273	61,95%	
Total Ganadores (P-IRPF + P-No IRPF)	25.946.297	75,67%	
	35.402.736		80,93%

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2016

6.4. GIPUZKOAKO FINANTZAKETA PROPOSAMENA

7. TAULA: 2011ko PFEZtik lortzen den informazioa

PERTSONAK	EUSTAT	PFEZ	ESTALDURA %
AITORTZAILEAK		448.560	
MENPEKO HIRITARRAK		233.328	
HELDUAK	590.927	564.156	95,47%
GAZTEAK (<18 URTE)	118.680	117.732	99,20%
GUZTIRA	709.607	681.888	96,09%

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2014, egileak moldatua eta itzulia

8. TAULA: Oinarrizko errentaren finantzaketa PFEZ aitortzen ez dutenentzat, milioi eurotan

PERTSONAK	EUSTAT	PFEZ	DIFERENTZIA	KOSTUA (milioi €)
HELDUAK	590.927	564.156	26.771	212
GAZTEAK (<18 URTE)	118.680	117.732	948	1
GUZTIRA	709.607	681.888	27.719	213
Oinarrizko errenta ezartzearen ondoriozko aurrekia				1.731
PFEZ aitortzen ez dutenentzat oinarrizko errentaren kostua				213
SOBERAKINA				1.518

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2014, egileak itzulia

9. TAULA: Finantzaketa proposamenaren irabazle eta galtzaileak

Decilas de renta	% personas ganadoras	Ganancia total (miles de €)	Ganancia per capita (€)	% personas Perdedoras	Pérdida total (miles de €)	Pérdida per capita (€)
10%	100%	301.668	6.725	0%	0	0
20%	100%	219.004	4.882	0%	0	0
30%	100%	154.528	3.445	0%	0	0
40%	100%	104.233	2.324	0%	0	0
50%	86,0%	67.763	1.757	14,0%	2.558	409
60%	69,0%	52.024	1.682	31,0%	13.460	968
70%	45,9%	31.306	1.519	54,0%	31.960	1.319
80%	24,9%	19.124	1.709	75,0%	62.070	1.845
90%	0%	0	0	100,0%	114.941	2.563
95%	0%	0	0	100,0%	91.807	4.094
98%	0%	0	0	100,0%	80.057	5.950
100%	0%	0	0	100,0%	151.441	16.881

Iturria: Arcarons, Raventós & Torrens, 2014

6.5. IRLANDAKO FINANTZAKETA PROPOSAMENA

10. TAULA: Adin tarte bakoitzeko zenbatekoa milioi eurotan, 2015

Payment	Weekly (€)	Annual (€) ⁵⁸	Cost (€m)
Children (0-17)	31.05	1,620	1,978
Working Age Adults (18-65)	150	7,827	22,490
Older people (66-79)	230.30	12,017	5,027
Older people (80+)	240.30	12,539	1,803
Total			31,298

Iturria: Murphy & Ward, 2016

11. TAULA: Oinarrizko errentaren finantzaketa milioi eurotan, 2015

Atal garrantzitsuak	€ m
UBI ordaintzen kostu totala	31.298
Mantenduko diren ordaintzen kostua	3.843
UBI kostu totala	35.141
Beste departamentuetatik datorren aurrezkiak	729
UBIren kostu garbia	34.412
Gizarte babeserako sailaren gastuak 2015ean	19.893
Errentaren gaineko zergaren, PRSI, USC eta abarren finantzaketa, 2015ean	26.763
Errentaren gaineko zergaren soberakina gizarte babeserako sailaren gastuak finantzatuta	6.870
Finantzaketa beharra: UBIren kostu garbia + gaur egungo sistemaren soberakina	41.281
Langileen PRSI	7.704
Sarrera pertsonal guztiei errentaren gaineko zerga bera aplikatzean lortuko dena	33.577
Sarrera pertsonal guztiei ezarritako errentaren gaineko zerga	40%

Iturria: Murphy & Ward, 2016, egileak itzulia

6.6. EUOPAR BATASUNEKO LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA

12. TAULA: Europar Batasuneko langabezia-tasaren ehunekoa sexuaren eta adinaren arabera, 2008-2016

URTEAK / LANGABEZIA-TASA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	<25 URTE	25-74 URTE
2008	7,1	6,6	7,5	15,9	5,9
2009	9,1	9,0	8,9	20,3	7,6
2010	9,7	9,7	9,6	21,4	8,3
2011	9,7	9,6	9,8	21,7	8,3
2012	10,6	10,4	10,5	23,3	9,1
2013	10,9	10,8	10,9	23,7	9,5
2014	10,3	10,1	10,3	22,2	9,0
2015	9,5	9,3	9,5	20,3	8,3
2016	8,6	8,4	8,8	18,7	7,5

Iturria: Egileak egin Eurostat-eko datuetan oinarrituta